



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko azaroaren 9a

111. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Iruñeko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitaratara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

Txosten exekutiboa edo laburpena (3. or.).

I. Sarrera (4. or.).

II. Datu orokorrak (4. or.).

II.1. Udalari buruzko informazio orokorra (4. or.).

II.2. Araudia (6. or.).

III. Helburua (7. or.).

IV. Lanaren norainokoa eta mugak (7. or.).

IV.1. Lanaren norainokoa (7. or.).

IV.2. Lanak izandako mugak (7. or.).

V. Iritzia (7. or.).

V.1. Udalaren kontu orokorra (8. or.).

V.2. Legezketasuna (8. or.).

V.3. Aurrekontuaren betetzea eta udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioa 2007ko abenduaren 31n (8. or.).

VI. Udalaren erregularutasun-auditoriaren ondorioztapen eta gomendioak (9. or.).

VI.1. Aurrekontu orokorra eta kontu orokorra (9. or.).

VI.2. Barne-kontrola (10. or.).

VI.3. Udalaren aurrekontuko diru-sarrerak (10. or.).

VI.3.1. Tributuak (10. or.).

VI.3.2. Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak (11. or.).

VI.3.3. Ondasun-diru-sarrerak (12. or.).

VI.3.4. Inbertsioak besterentzea (13. or.).

VI.4. Udalaren aurrekontu-gastuak (13. or.).

VI.4.1. Langileak (13. or.).

VI.4.2. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (16. or.).

VI.4.3. Inbertsioak (17. or.).

VI.4.4. Transferentzia-gastuak (19. or.).

VI.4.5. Zerbitzu informatikoak (20. or.).

VI.5. Udalaren egoera-balantzea (22. or.).

VI.5.1. Itxitako ekitaldietako aurrekontu-zordunak (22. or.).

VI.5.2. Kontu finantzarioak (23. or.).

VI.5.3. Aurrekontuko hartzekodunak (24. or.).

VI.5.4. Aurrekontuz kanpoko eragiketak (24. or.).

VII. Kirol zerbitzuko programei eta Musika Eskolari buruzko ondorioztapenak (25. or.).

VII.1. Datu orokorrak (25. or.).

VII.2. Kirol-zerbitzua (26. or.).

VII.3. Musika Eskola (30. or.).

VIII. Udalaren menpeko erakundeak (32. or.).

VIII.1. Erakunde autonomoak (32. or.).

VIII.2. Udalaren enpresa publikoak (33. or.).

VIII.3. Fundazioak (33. or.).

IX. 2006ko fiskalizazioan eginiko gomendioen betetzeari buruzko analisisa (33. or.).

Eranskina.

Behin-behineko txostenari buruz Iruñeko Udaleko alkateak egindako alegazioak (38. or.).

Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emaniko erantzuna (45. or.).

Iruñeko Udalaren urteko kontu bateratuen oroitadazia, 2007ko abenduaren 31ri dagokiona.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

www.cfnavarra.es/camara.comptos

TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENA

Iruñeko Udalak, 2007ko urtarrilaren 1ean, 194.894 biztanle zituen.

Gobernu organoak Osoko Bilkura, Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatetza dira, besteak beste.

Udalaren egitura osatzen dute Alkatezako Kabineteak eta 13 alorrek, Gerentziaren koordinazio eta zuzendaritzapean.

Zerbitzu publikoen kudeaketarako, udalak erakunde autonomo gisa eratu ditu Hirigintza Gerentzia eta haur eskolak, bai eta bost enpresa publiko eta bi fundazio ere.

2007an egindako erregulartasun-auditoriari buruz daukagun iritzia da udalaren kontu orokorrak garrantzizkoak diren alderdi guztietan erakusten duela ondarearen, finantza-egoeraren, aurrekontu-likidazioaren eta emaitza ekonomikoen 2007ko abenduaren 31ko egoeraren irudi zehatza, salbu eta montepioari atxikitako funtzionarioen betebeharrak aktuarialak kuantifikatu ez izanari dagokionez.

Legezkotasunari dagokionez, udalak 2007an indarrean zegoen araudia oro har bete egin zuela deritzogu.

Finantza-egoerari dagokionez, 4,89 milioiko aurrezki garbia lortu zen arren, aurrezki horrek, aurreko urtekoarekin alderatuta, beherakada izan zuen, eta horren zergatia izan ziren finantza-kargaren igoera, dirusarrera arrunten beherakada eta funtzionamendu-gastuen gorakada. Beraz, udalaren zorpetze-mugak eta -ahalmenak ere behera egin zuten.

2007an, 27,24 milioi euroko defizit doitua sortu zen, eginiko inbertsioak finantzatzeko premien ondorioz. Horixe bera gertatu zen 2006an ere, eta horren ondorioz, 2007ko ekitaldiaren amaieran 35,63 milioi euroko diruzaintza-gerakin negatiboa izan zen gastu orokorretarako.

2007an likidezia-problema izan ziren, eta hiru diruzaintza-mailegu itundu ziren, 20 milioi euro egiten zutenak.

Honakoak dira egindako erregulartasun-auditoriatik ateratako ondorioztapen nagusiak:

Udaleko kontu-hartzailetzak eginiko barne-kontrola mugatzen da gastuen aurretiazko kontu-hartzaera eta menpeko entitateen kontrol finantzariara. Udalaren kudeaketa ekonomikoaren ikuspegitik daukan garrantziarengatik, Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritako hedapenaz ezarri beharra dago hori.

Dirusarrerei dagokienez, zenbait akats detektatu dira eraikin, instalazio eta obren gaineko zergaren kudeaketan, bingoaren gaineko zergarenean, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren hobarien izapidetzean eta Baluarte S.A. enpresa publikoak aparkalekua ustiatzearen ondoriozko kanonaren dirubilketan.

Lurzoruaren udal ondareko lurzatieen salmenta, ikuskatu ditugun kasuetan, izapidetu zen legedi aplikagarriari jarraituz, nahiz eta udalak ez duen sortu lurzoruaren udal ondarearen erregistroa.

Langileria-gastuei dagokienez, ikusi dugu aldi baterako kontratazio ugari egin direla lanpostu hutsek betetzeko, nahiz eta 2007an deialdiak egin ziren aurreko urteetan eskainitako lanpostuetarako. 2007an 56.083 aparteko ordu egin ziren, 869.726 euroko zenbatekoa egiten dutenak; kasu ugarietan, urte bakoitzeko 50 orduen muga gainditu egin zen, muga hori gainditzea justifikatzen duten salbuespeneko arrazoiak adierazi ez badira ere.

Obren, horniduren eta laguntza-zerbitzuen administrazio-kontratazioaz denaz bezainbatean, kontratuaren izapidetzea eta esleipena kontratulegedia betez egin da oro har, nahiz eta zenbait akats aurkitu diren kontratuen exekuzioan eta aldatzeetan.

Animsa S.A. udal enpresaren ardurapean ipinitako zerbitzu informatikoek 5.046.255 euroko zenbatekoa egin zuten, eta horietatik, 3.482.292 euro exekutatu ziren. Gainera, Animsak "ciudades singulares" izeneko proiektua garatu du. Proiektu horretarako aurreikusitako baliabide guztiak xahutu dira (929.142 euro), proiektu horretan jasotako jarduketak amaitu gabe.

Ganbera honek kirol-programen eta musika-eskolakoen ebaluazio bat ere egin du. Horri buruz, nabaria da udal zerbitzuen kudeaketaren ebaluazioa egin dadin udalak duen interesa, eta horren froga dira aurreko urteetan eginiko kostu-azterlanak, adierazleen ezarpenerako proiektu batean inplikatu izana eta zerbitzu-gutunaren onespina. Hala ere, jarduketa horien ezarpenari bultzada eman behar dio. Programa horien ebaluzioak muga gisa izan ditu helburu zehatz eta neurgarriak ez egotea, adierazlerik eza eta zerbitzuen kostua kalkulatzeko metodoa.

Erakunde autonomo, enpresa publiko eta udal fundazioen 2007ko urteko kontuei buruz kanpo profesionalak eginiko finantza-auditoriek oniritzia agertzen dute, salbu eta Erruki Etxearen Fundazioari dagokionez. Kasu horretan, oniritzia eman da, baina salbuespen batekin: fundazioak sozietateen gaineko zergaren aitortpena aurkezteko betebeharra izatearen ondoriozko ziurgabetasuna.

2006ko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioen betetzeari buruzko analisi bat egin da, txosten honetako IX. atalean jasoa. Lan honek erantzuten dio Ganbera honek Parlamentuko batzorde batean, Toki Administrazioan zehazki, hartutako konpromisoari.

I. SARRERA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraikiz, Comptos Ganberak Iruñeko Udalaren 2007ko ekitaldiko erregulartasun-auditoria egin du, bai eta kirol-programen eta musika-eskolakoen 2005etik 2007ra bitarteko ebaluazioa ere.

Lan hau sartu zen Comptos Ganberak 2008rako onetsi zuen fiskalizazio-programan, eta auditoriako bost teknikarik eta auditore batek osaturiko taldeak egin zuen, betiere Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administrati-boen laguntzarekin.

2006ko fiskalizazioan eginiko gomendioen betetzea ere aztertu da. Lan hau da Ganbera honek 2008ko azaroaren 25ean Parlamentuko Toki Administrazioan batzordean egin zuen agerraldian hartutako konpromiso baten emaitza. Egindako agerraldi haren helburua zen Iruñeko Udalaren 2006ko fiskalizazio-txostena esplikatzea.

Udalak eginiko 2007ko ekitaldiko kontu bateratuen oroitidazkia erantsi dugu.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileei.

II. DATU OROKORRAK

II.1. UDALARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA.

Iruñeko Udalak, 2007ko urtarrilaren 1ean, zuzenbideko 194.894 biztanle zituen, eta 23,55 km²ko azalera.

Udalaren antolamendua, besteak beste, beharrezkoak diren ondoko organoek osatuta dago: Osoko Bilkura, Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatetza.

Udalaren erregelamendu organikoa 1998koa da, eta ez da egokitu toki araubideko oinarriei buruzko legediak populazio handiko udalerrietarako ezarritako antolaketa-egiturara.

Administrazio-antolamendua arautze aldera, udalak erregelamendu berria onetsi zuen 2007an, eta bertan ezarri zen, alkatearen zuzendaritzapean, honako udal-egitura:

- Alkatezako Kabinetea.
- Gerentzia bat, udal alorren funtzionamendua zuzentzen eta koordinatzen duena.
- Hamabi gobernu-alor, zinegotzi banaren ardurapean. 2007an mugikortasun-alorra sortu zen, eta jadanik existitzen ziren beste batzuk berregituratu ziren.

Bai alkatetza kabinetea, bai alorrak, zuzendaritza eta idazkaritza tekniko baten ardurapean daude.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen tratamendukoak eta hiri garraiokoak (autobusa eta taxia).

Udalak, zerbitzu publikoak kudeatzeko, ondoko enteak sortu ditu:

- Erakunde autonomoak:
 - Udalaren Haur Eskolak: haur eskolen kudeaketa.
 - Hirigintzako Udal Gerentzia: Iruñeko udalerriko hirigintza kudeaketa.
- Enpresa publikoak
 - Udal enpresa publikoetan udalak duen partaidetza eta enpresa horiek emandako zerbitzu publikoak ondoko taulan ageri dira:

Enpresa	Partaidetza (%)	Sozietatearen xedea
Comiruña, S.A.	100	Txikizkako merkatuak
Pamplona Centro Histórico, S.A.	100	Hirigune historikoaren hirigintza
Animsa, S.A.	78,06	Udal informatika
Mercairuña, S.A.	51	Handizkako merkatuak


Udalak ehuneko 30eko partaidetza dauka Oficina de Congresos de Pamplona C.B., S. L. enpresan, zeinak kongresu-kudeaketa baitauka jardueragisa.

• Fundazioak:

Gayarre Antzokiaren Fundazioa, Gayarre antzokia kudeatzeko eta administratzeko.

Erruki Etxearen Fundazioa, hirugarren adinekoentzako zerbitzua emateko.

Iruñeko Udalaren eta haren menpeko enteen egitura honelakoa da, grafikoki:



Honakoak dira entitate horien guztien datu ekonomiko nagusiak 2007ko ekitaldiaren itxieran:

- Administrazio publikoaren arloa:

	Euroak, milakotan		
	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko betebeharrak	Langileak 2006-12-31n
Udala	204.178	271.906	1.378
Hirigintza Gerentzia	94.342	73.523	27
Haur eskolak	5.931	6.042	159
Guztizkoa, bateratua	276.286	323.305	

- Merkataritza-sozietateak:

Enpresak	Dirusarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak
Comiruña, S.A.	662	674	-12
Mercairuña, S.A.	1.441	1.222	219
ANIMSA	6.791	6.584	207
Pamplona Centro Histórico S.A	543	332	211

- Fundazioak:

	Dirusarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak
Gayarre Antzokia	2.882	2.442	440
Erruki Etxea	17.884	16.847	1.037

2007ko ekitaldiko kontu bateratuei buruzko oroitidazkian (udalak egina eta txosten honi atxikia) iruzkindu zabaldu eta osatu egiten da udalari eta haren menpeko enteei buruzko informazioa.

II.2. ARAUDIA

2007an zehar Iruñeko Udalak bete beharreko oinarritzko araudia nagusiki honako lege eta erregelamendu hauek osatzen dute:

- Toki esparruko araubide eta administrazioari eta ekonomiaren, aurrekontuen eta kontabilitatearen esparruko araubideei dagokienez, honakoak dira aplikatzekoak:

6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.

Iruñeko Udalari aplikatuko zaion antolaketa-araubidea izanen da Toki araubideko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko X.

tituluan (populazio handiko udalen antolaketa araubidea) ezarrita dagoena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen ondoriozko berezitasunak erantsita.

Udalaren erregelamendu organikoa, 1998koa.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.

Abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legea, Iruñeko Hiriburutza Agiria ezartzen duena.

Nafarroako Toki Administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitate instrukzio orokorra onesteari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak, hurrenez hurren.

Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, Toki Administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 1990eko uztailaren 17ko aginduz onetsitakoa.

2007ko aurrekontuaren betetze-oinarriak

Udalak ordinarazitako tasa eta prezio publiko-
ei buruzko ordenantzak eta erabakiak.

- Administrazio-kontratazioaren esparruan, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legean ezarritako berezitasunekin.

- Langileen arloan, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.

- Hirigintzaren arloan, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea.

- Dirulaguntzen arloan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, hori garatzeko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onetsia, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorra eta udalak onetsirik ordenantza bereziak.

III. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, udalaren 2007ko ekitaldiko jarduera finantzarioaren erregularitasun-fiskalizazioa egin dugu, bai eta 2005, 2006 eta 2007. urteetako kirol-programen eta musika-eskolako programen ebaluazioa eta 2006an eginiko fiskalizazioan emandako gomendioen betetzeari buruzko analisisa ere.

Lanaren xedea da gure iritzia ematea hurrengo gaiei buruz:

a) Ea udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokor-
rrak ondarearen, egoera ekonomiko-finantzarioa-
ren, aurrekontuaren likidazioaren eta 2007ko
abenduaren 31ko emaitza ekonomikoaren irudi
zehatza ematen duen, aplikatzekoak diren kontabi-
litate-printzipio eta -arauei jarraituz.

b) Legeen betetzea udalak 2007ko ekitaldian
izandako jarduera finantzarioan.

c) Zein zen udalaren finantza-egoera 2007ko
abenduaren 31n.

Auditoria honen xede dira, halaber:

- Kirol-zerbitzuen eta musika-eskolako zerbitzu-
en kudeaketa ebaluatzea.

- Ganbera honek 2006ko ekitaldiari buruzko fis-
kalizazio-txostenean emandako gomendioen bete-
tze-maila aztertzea.

IV. LANAREN NORAINOKOA ETA MUGAK

IV.1. LANAREN NORAINOKOA

Fiskalizazioa egitean, oinarri gisa hartu da uda-
laren beraren kontu orokorra, 2007ko ekitaldiko,
udaleko Osoko Bilkurak 2008ko irailaren 4an one-
tsia. Hartan sartzen dira aurrekontuaren likidazioa-
ren espedientea, ekonomia- eta ondare-egoeraren
eta finantza-egoeraren espedientea (egoera-
balantzea eta galera eta irabazien kontua) eta
eranskinak.

Fiskalizazioa gauzatu da udalaren barne kon-
trollaren eta aurrekontuko gastuen eta dirusarreraren
eta udaleko balantzeko ondare-kontuen lagin
baten azterketa eginez; horretarako, hautaketa-
probak egin eta lanaren helburuak betetzeko
beharrezkotzat jo diren auditoria-teknikak baliatu
dira.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kon-
troleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak
onetsiriko fiskalizazio printzipioei eta araei jarrai-
tuz, zeinak Comptos Ganberak bere fiskalizazio-
eskuliburuan garatu baititu.

Gure lanak ez zuen bere barnean hartu udala-
ren erakunde autonomoen eta enpresa publikoen
2007ko ekitaldiko kontuen fiskalizazioa; kanpoko
profesional batzuek egin dute kontu horien audito-
ria.

IV.2. LANAK IZANDAKO MUGAK

Ezin izan dugu egiaztatu sei hartzekodunen
saldoaren egokitasuna, guztizko zenbateko konta-
bilizatua 820.204 eurokoa zuena, ez dietelako
erantzun Ganbera honek bidalitako eskaerei.

Kirol-zerbitzuko eta musika-eskolako progra-
men eraginkortasun, efizientzia eta ekonomiaren
azterketak muga gisa izan ditu honakoak: helburu
neurgarri eta kuantifikaturik ez egotea, horiek
neurtzeko adierazlerik ere ez egotea, Ganbera
honek proposaturiko kudeaketa-adierazle batzuen
kalkulurako daturik eza eta zerbitzuen kostua kal-
kulatzeko metodoa.

V. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, uda-
laren 2007ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu
dugu. Udalaren erantzukizuna dira kontu horren
prestaketa eta edukia.

Egin dugun fiskalizazioaren emaitza modura,
hona gure iritzia:

V.1. UDALAREN KONTU OROKORRA

Alde batera utzirik udal montepioari atxikitako funtzionarioen pentsio-eredu indardunen ondoriozko betebeharrak aktuarialak zenbatetsi ez izanari dagokion salbuespenaren ondorioak, udalaren 2007ko ekitaldiko kontuek irudi zehatza agertzen dute, muntadunak diren alderdi guztietan, 2007ko abenduaren 31ko ondareari eta egoera finantzarioari, 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari eta egun horretako emaitza ekonomiko eta ondarezkoari buruz, eta beharrezkoa eta nahikoa den informazioa biltzen dute hori egokiro interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoak diren kontabilitate publikoko printzipio eta arauak jarraituz.

V.2. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren ekonomia- eta finantza-jardura legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da 2007ko ekitaldian zehar.

V.3. AURREKONTUAREN BETETZEA ETA UDALAREN EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA 2007ko ABENDUAREN 31n

Udalaren aurrekontu-betetzearen eta egoera finantzarioaren emaitza eta adierazle nagusiak honakoak dira:

	Euroak, milioitan			
	2007	2006	2005	2004
Aitorturiko eskubideak, guztira	204,18	209,62	215,95	169,71
Aitorturiko betebeharrak, guztira	271,91	228,78	192,71	166,53
Aurrekontu-emaitza doitua	-27,24	-21,30	-6,67	4,99
Inbertsioak eta kapital transferentzietako gastuak	113,54	75,89	51,18	36
Dirusarrera arruntak	161,23	171,05	146,60	135,78
Funtzionamendu-gastuak	151,59	148,35	134,83	124,41
Aurrezki gordina	9,64	22,70	11,76	11,37
Finantza-karga	4,75	2,66	4,99	2,95
Zorpetze-maila	2,95	%1,55	%3,40	%2,17
Zorpetze-muga	5,98	%13,27	%8,02	%8,37
Zorpetze-ahalmena	3,03	%11,72	4,62	%6,20
Zor bizia	60,06	48,09	49,60	50,88
Diruzaintza-gerakina, orotara	-28,34	25,44	47,76	17,93
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-35,63	-6,76	-6,07	2,45

2007an aitorturiko eskubideak 204,18 milioi eurokoak dira, eta behin betiko aurreikuspenen ehuneko 66 egiten dute (diruzaintza-gerakina kendu ondoren). 2006ko ekitaldiarekin alderatuz gero, ehuneko 3 murriztu dira.

2007ko abenduaren 31n, eskubide guztietatik ehuneko 89 kobratuta zeuden.

Aitorturiko betebeharrak 271,91 milioi euro egiten dute, eta haien betetze-maila da behin betiko kredituen ehuneko 87koa. Aurreko ekitaldiari dagokionez, gastuek ehuneko 19ko gehikuntza izan dute; batez ere, inbertsioen gorakadarengatik eta Hirigintza Gerentziari nahiz Pamplona Centro Histórico S.A. udal sozietateari eginiko kapital-transferentziengatik. Gastu guztietatik, 2007ko abenduaren 31n ehuneko 76 zeuden ordainduta.

2007an, udalak behar adina baliabide arrunt sortu du funtzionamendu-gastuei eta karga finantzarioari aurre egiteko. 4,89 milioi euroko aurrezki garbia lortu du.

Alabaina, 27,24 milioiko aurrekontu-defizit doitua izan du, eginiko inbertsioen eta kapital-gastuen finantzaketa-beharrianengatik.

2007an bi mailegu hitzartu ziren, guztira 15 milioi euro egiten zutenak. Abenduaren 31n, udalaren zorra 60,06 milioi eurokoa zen; zorpetze-maila, dirusarrera arruntan ehuneko 2,95koa; eta muga, ehuneko 5,98koa.

2007ko abenduaren 31n, diruzaintza-gerakin orokorra -35,63 milioikoa zen; 2006an, aldiz, -6,76 milioikoa. Beherakada nabarmen horren zergatia da inbertsioen eta kapital-gastuen finantza-ketak eza.

Horri buruz, Osoko Bilkurak erabaki zuen, 2008ko abenduan, diruzaintza-gerakin orokor negatiboa finantzatzea epe luzeko zorpetzearekin. Neurri hori jasota dago Toki Ogasunei buruzko Foru Legean eta foru lege hori aurrekontuen eta gastu publikoaren alorrean garatzeko 270/1998 Foru Dekretuan.

VI. UDALAREN ERREGULARTASUN-AUDITORIAREN ONDORIOZTAPEN ETA GOMENDIOAK

Atal honetan sartu dira 2007ko ekitaldian eginitako erregulartasun-fiskalizaziotik ateratako ondorioak, bai eta udal-kudeaketa hobetzeko gomendioak ere.

VI.1. AURREKONTU OROKORRA ETA KONTU OROKORRA

2007ko aurrekontu orokorrari hasierako onepena eman zitzaion, 355,22 milioi euroko zenbatekoarekin, 2006ko azaroaren 30eko Osoko Bilkuraren Aurrekontuaren likidazioa 2008ko ekainaren 6an onetsi zen.

2007ko aurrekontu orokorraren edukari dagokionez, honako dokumentu hauek ez dira aurkitu:

- Udalaren erakunde autonomoei buruz udal kontu-hartzailetzak eginitako txosten ekonomiko-finantzarioa.
- Animsa eta Mercairuña udal sozietateek ez dute jarduketa-planik erantsi, eta beren inbertsioetarako aurreikusitako finantzaketa ere ez dute adierazi.
- 2007ko aurrekontuari atxikitako langileria-eranskinean sarturik daude aldi baterako langileak, kontratuen hasiera- eta amaiera-egunen xehetasunarekin; dena den, bete beharreko lanpostu hutsei eta kontratazio berriei buruzko aurreikuspenak ez dira jasotzen.

- Lau urteko inbertsio-plana, zeina, kontabilitate-araudiari jarraituz, borondatezkoa baita; horrez gain, inbertsio-proiektuak eta horien lau urteko eperako finantzaketa-programak.

2007ko kontu orokorra osatzen duten kontabilitateko egoera-orriek dagokienez:

- Aurrekontuaren likidazio-espeditentean: kreditu-gerakinen egoera-orria eta gastu-itzulketen garapena ez dira agertzen, eta honakoak osatu gabe daude: finantzaketa atxikia duten gastuen egoera-orria, dirusarreraren itzulketen egoera-orria eta itxitako aurrekontuen egoera-orria.

- Egoera ekonomiko, ondarezko eta finantzarioaren espeditentean: ezohiko emaitzen kontua eta itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketaren egoera-orria ez dira aurkitu.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontuari dagokion eranskinean: ez dira aurkitzen diruzaintzako egoeraren laburpen orokorra eta etorkizuneko dirusarreraren konpromisoen egoera-orria.

- Kontu orokorraren eranskinetan: ez da agertzen PCH, Animsa eta Mercairuña enpresen zorren egoera-orria.

Diruzaintza-gerakinari dagokionez:

- Balantzeko pasiboan dagoen "transferentzietarako lotura" izeneko kontu baten 28.672 euroko saldo hartzekoduna aintzat hartu da. Kontu horren osaera ezezaguna zaigu.

- Kobratzen zailtzat jotako zordunen kontzeptuaren 405.556 euro gutxiago deskontatu dira, udalak oroitidazkian azaldutako irizpidea aplikatzearen ondoriozko emaitzakoak baino.

Diruzaintzako egoera-orriak ez ditu behar bezala jasotzen ekitaldian zehar eginitako aurrekontuz kanpoko eragiketen ondoriozko kobrantzak eta ordainketak, nahiz eta desdoikuntza horrek ez duen eraginik diruzaintzak azkenean duen izakin-egoeran.

Kontabilitate-programa informatikoak kontabilitateko zenbait egoera-orri buruz ematen duen informazioa, hala nola gastu-proiektuei, baliabide atxikiei eta kreditu-gerakinei buruzkoa, ez da zuzena, eta ez ditu betetzen kontabilitate-legedian ezarritako baldintzak.

Deskoordinazioa nabaritu da udaleko alor batzuen eta kontabilitate eta diruzaintza departamentuen artean. Horren zergatia da alorrek ez dizkietela departamentu horiei beti jakinarazten kudeatzen dituzten zerbitzuekin zerikusia daukaten eragiketa eta egitate ekonomiko guztiak.

Hona gure gomendioak:

- *Legez ezarritako epeetan onestea aurrekontu orokorra, bere likidazioa eta kontu orokorra, eta Nafarroako Gobernuari bidaltzea haiek onetsi eta 15 eguneko epean.*
- *Aurrekontu orokorreko eta kontu orokorreko espeditentean sartzeko kontabilitate-araudiak ezarritako dokumentu guztiak.*
- *Kontu orokorra osatzen duten kontabilitateko egoera-orrietako datuak elkarrekin erkatu eta koardatzea.*

- *Kontabilitateko informatika-aplikazioa egokitzeari buruzko legedian ezarritako baldintzetara, lanabes baliagarria izan dadin, udal kudeaketarako eta erabakiak hartzeko informazio zuzen eta egokia emanen duena.*

- *Jardunbideak ezartzea, bermatuko dutenak udal alorrek kudeatutako zerbitzuetatik eratorritako eragiketa eta egitate ekonomiko-finantzario guztiak diruzaintza eta kontabilitate departamentuei komunikatzea.*

VI.2. BARNE-KONTROLA

2007ko ekitaldian udal kontu-hartzaitzak eginiko barne-kontrolak jomuga izan du gastuen aurretiazko fiskalizazio mugatua, ordainketa-aginduaren kontu-hartzea eta udaleko erakunde autonomo eta enpresa publikoen kontrol finantzarioa, kanpo-auditoriei enkargaturiko auditorien bitartez eginikoa.

Errepikatzen dugu barne-kontrola indartzeak duen garrantzia, udalaren kudeaketa ekonomikoa hobetzeko beharrezko eta nahitaezko bitarteko gisa. Horregatik da hain munta handikoa Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritako hedapenez hura ezartzea.

Puntu horri dagokionez, Ganbera honek hau gomendatzen du:

- *Aurretiazko fiskalizazioa egin zaien gastuen lagin baten gainean fiskalizazio osoa egitea, eta horretatik ateratako ondorioak Osoko Bilkurari jakinaraztea.*

- *Udal dirusarrerei dagokienez, barne kontrola ezarri eta aurrera eramatea.*

- *Udal-zerbitzu eta inbertsioei dagokienez, eraginkortasun-kontrola egitea.*

- *Erakunde autonomoen kontu-hartzaitza eginkizuna betetzea eta erakunde autonomo nahiz enpresa publikoetan eraginkortasunaren kontrola aurrera eramatea.*

VI.3. UDALAREN AURREKONTUKO DIRUSARRERAK

Udalaren eskubide aitortuek 204,18 milioi euro egiten dute 2007. urtean; alegia, 2006ko ekitaldian baino ehuneko 3 gutxiago.

VI.3.1 Tributuetak

Tributu-lagin batean egiaztatu dugu ezen, oro har, haien likidazioa eta bilketa egiten dela gai hori

antolatzen duten arauak betez; ez, ordea, aldizkako zergen aitorpenak epeaz kanpo aurkezteagatik eginiko tributu-urraketan ondoriozko zehapen-prozedura.

Eginiko fiskalizaziotik, nabarmentzen dugu:

- *Hiri-lurraren kontribuzioa: udalak ez du berri-kusi hiri-aberastasuna balioesteko ponentzia, 1998ko abenduan onetsirikoa. Berrikuspen hori, hain zuzen, bost urtean behin egin beharrekoa da.*

- *Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ): 2007an, zerga horren ondoriozko dirusarrerak 9,54 milioi eurokoak izan ziren.*

Nafarroako Gobernuak ez zuen udalera bidali 2007ko jarduera ekonomikoen erregistroa, eta hura erakustearen iragarkiak ere ez zituen argitaratu.

Toki Ogasunei buruzko Foru Legeaz bestelako legedian ezarritako eta udalak aurretiaz eskatu ondoren Nafarroako Gobernuak ordaindu beharrekoak diren JEZ-hobarietarako dagokienez, 2008. urtearen amaieran kobratzeke daude udalak 2003tik 2007ra bitartean onetsirik 2,5 milioi euro. Zenbateko honetan sarturik daude 2007 baino lehenagoko 1,24 milioi. Ez da inon agertzen diru hori ordaintzea Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaienik.

2008ko azaroaren 6an, udalak Nafarroako Gobernuari eskatu zion 2006. urteari zegozkion hobariaren konpentsazioa, 225.375 euroko zenbatekoa egiten zutenak ⁽¹⁾.

Kontabilitatean, JEZ-dirusarrerara gisa egotzi dira 130.590 euro, lurralde-kontribuzioari zegozkion hobariarenak. Gainera, 36.197 euroko zenbateko garbia egiten duten hobariengatik eskubideak ez dira aitortu.

2005 eta 2006an zehar, udalak, Animsa enpresa publikoaren bitartez, JEZaren kudeaketarako proiektu informatiko bat garatu zuen, 84.689 euroko guztizko kostua izan zuena. Proiektu horren ezarpena eten egin da, "ciudades singulares" proiektuaren esparruan udal kudeaketaren zereginetarako garaturiko plataforma berriari loturiko aukerak ezagutu arte.

- *Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ): ordenantza arautzailearen arabera, obrak bukatu ondoko hilabetearen barruan, zergadunak obra-egitearen eta kasuko eraikuntza, instalazio edo obraren egiazko kostuaren aitorpena aurkeztuko du, eta zerga ordaindu beharko da,*

(1) Lerrokada hau 3. alegazioaren bidez aldatu da

amaierako autolikidazio osagarriaren kasuan, obrak bukatu eta hilabeteko epean. Ez dago prozedurarik zera bermatuko duenik, dokumentazio hori aurkeztuko dela eta EIOZ kobratuko dela ordenantzak ezarritako epean.

- Bide publikoan ibilgailuak aparkatzearen tasak (MUGA): 2007an guztira 7,82 milioi kontabilizatu dira, eta zenbateko horretan sartzen dira 2006ko azaro eta abenduko dirusarrerak; hilabete horietan, zerbitzuaren emakida hartu zuen enpresako langileak greban egon ziren.

Udalak lortu zuen, aparkatze mugatuko zerbitzuaren kudeaketarekin, dirusarrerek 1,47 milioi euroan gainditzea gastuak. Emaizta horretan, grebaren ondoriozko 348.810 euroko defizita dago, zeina udalak enpresa emakida-hartzaileari ordaindu baitzion 2007ko dirubilketaren kargura.

Oraindik ere ez da egiten kontrol orokor eta aldizkakorik enpresa emakida-hartzaileak udalean aitortu eta ordaintzen duen dirubilketaren gainean.

2007ko abenduan, aparkaldi mugatuko tokiak 844 gutxiago izan ziren urte bereko urtarrilean baino, eta espedientean ez da agertzen murrizketa horren justifikaziorik.

- Zerbitzu publikoen enpresen aprobetxamendu bereziak: 2007an aprobetxamendu bereziengatik kontabilizaturiko dirusarrerak 3,3 milioioak izan ziren. Kopuru horretan sartu ziren 0,5 milioi euro, 2007an kobratuak, enpresa baten 2002tik 2006ra bitarteko likidazioengatik.

Enpresek aurkezten dituzten aitortpenak zuzenak direla eta aitortzera behartuta dauden enpresa guztiek aitortpena egiten dutela bermatzeko kontrol-prozedurarik ez da existitzen.

- Bingoaren gaineko zerga: 2007an, zerga horren ondoriozko dirusarrerak 1,71 milioi eurokoak izan ziren. Joko-antolatzaile diren enpresek (zerga-diruaren gordetzaile dira) ez zuten aurkeztu 2007an inolako hileroko aitortpen-likidaziorik, eta ordainketa zuzen-zuzenean udalari egin zioten.

Bestalde, egiaztatu dugu enpresetako batek ez zuela deklaratu ez eta ordaindu ere 2007ko martxotik abendura bitarteko epeari zegokion zerga.

- Aparkalekuetako pasabideak: 2007an, zerga horren ondoriozko dirusarrerak 0,59 milioi eurokoak izan ziren.

Zergadunei ez zaie banan-banan jakinarazten pasabide-tasaren zergadun gisa alta hartu izanari dagokion likidazioa.

Hona gure gomendioak:

- Zehapen-prozedura bat ezartzea aldizkako zergen aitortpenak epe kanpo aurkeztearen ondoriozko zerga-alorreko arau-hausteetarako.

- Gobernuari eskatzea jarduera ekonomikoen gaineko zergaren konpentsazioak ordain ditzan.

- Aplikazio informatiko berrien garapena planifikatzea, ezarri egiten ez diren proiektu informatikoen alferrikako kostuak saihestearren.

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagokionez, prozedura bat ezarri behar da, zergadunari exigitu ahal izateko bai eraikuntza, instalazio edo obraren egiazko kostuaren aitortpena aurkeztea, bai zerga kobratzea ordenantzan ezarritako epean.

- Prozedura orokorrak onetsi eta ezartzea bide publikoan ibilgailuak aparkatzearen tasen bilketa kontrolatzeko. Bilketa horren zenbatekoa enpresa emakidadunak aitortu eta ordaintzen dio udalari.

- Aparkalekuetako pasabideen kasuan, zergadunei banan-banan jakinarazi behar zaie kasuko tributuen zergadun gisa eroldan alta eman zaieela.

- Hornidura-zerbitzu publikoen enpresek zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu bereziei buruz eginiko aitortpen-likidazioak berrikustea, horrela kontrolatze aldera enpresek udalerrian izandako urteko fakturazioko dirusarrera gordin guztiak aintzat hartu direla, ordenantzak ezarritako epean aurkezten direla eta dirusarrera horiek beren sortzapenaren arabera kontabilizatzen direla.

- Bingo-jokoaren gaineko zerga kudeatzean hura arautzen duen ordenantza fiskalak ezarritakoari jarraitzea, jokia antolatzen duten enpresei sari banatuen aitortpena exigituz, eta hori kontrajartzea eskueran dagoen informazioarekin. Bingo-jokia antolatzen duen enpresa batek aitortu ez eta ordaindu ez duen 2007ko martxotik abendura bitarteko zergaren kobrantza izapidetzea.

VI.3.2 Transferentzien ondoriozko dirusarrerak

Udalak 2007an jaso zituen transferentzien eta dirulaguntzen ondoriozko dirusarrerak 80,84 eurokoak izan ziren gastu arruntetarako, eta 16,08koak kapital-gastuetarako. Dirusarrera horien ehuneko 94 Nafarroako Gobernutik datoz.

Ikusi dugu ez dizkiotela udal-alor guztiek kontabilitate-atalari jakinarazten haiek jasotzen eta kudeatzen dituzten transferentziak eta dirulaguntzak.

Hona gure gomendioak:

• *Udal alorrek kontabilitate-departamentuari jakinaraztea zein diren kudeatzen dituzten transferentzia eta dirulaguntzak, horrela behar bezala erregistra eta kontabiliza daitezen.*

VI.3.3. Ondasun-dirusarrerak

2007. urtean sorrarazitako ondare-dirusarrerak 3.132.507 euro izan ziren, eta kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitorturiko eskubideak
Kontu korronteen eta finantzarioen interesak	593.528
Irabaziak	128.734
Errentamenduak	793.201
Emakidak eta kanonak	1.194.543
Azalera-eskubideak	422.500

Mercairuña SA enpresaren dibidendu gisa 64.367 euro gehiago kontabilizatu dira.

Baluarte SA sozietate publikoak kudeatzen duen aparkalekuaren ustiapenaren administrazio-emakidari dagokionez, kasuko kanona ordaindu

zen adosturiko egunarekiko atzerapen handiz; horrenbestez, kasu batzuetan urtebete baino gehiagoko epeetan zehar udalak dirusarrera garrantzitsurik gabe iraun zuen, honako taulak erakusten duen bezala:

Aldia	ZENBATEKOA	Adosturiko eguna	ORDAINKETAREN EGUNA
2005eko kanonaren likidazioa	108.726	2006ko urtamilaren 31	2007ko urtamilaren 1a
2006ko kanona	41.225	2006ko apirilaren 30a	Guztizko kopurua, 251.931,
	41.225	2006ko uztailaren 31	2007ko abuztuaren 31n
	41.225	2006ko urriaren 30a	ordaindu zen
	128.255	2007ko urtamilaren 31	
2007ko kanona, 3 hiru hilekoren kontura	62.983	2007ko apirilaren 30a	2007ko azaroaren 30ean
	62.983	2007ko uztailaren 31	100.000 ordaindu zen
	62.983	2007ko urriaren 30a	

Ez dago konstantziarrik lurzuaren udal ondarreko bi lursailen gainean eraturiko azalera-eskubideen ondoriozko dirusarrerak, 422.500 eurokoak, hirigintza-legediak ezarritako helburuei lotu izanaz. Azalera-eskubidea ez da udal-inbentarioan agertzen.

Hona gure gomendioak:

- *Aparkalekuaren administrazio-emakidaren kanona kobratu behar da horri buruz sinaturiko akordioan ezarritako egunean.*

VI.3.4 Inbertsioak besterentzea

Inbertsio-besterentzea dela-eta 2007an sorrazitako dirusarrerak 9,87 milioi eurokoak dira; hots, aurreikusitakoen ehuneko 26. Exekuzio apal horren arrazoia da ez direla aurreikusitako lursail guztiak saldu.

Arrotxapeko P-9A poligonoko bi lursailen salmenta berrikusi dugu. Salmenta hori lehiaketa publiko bidez eta 5,94 milioi euroren truke egin zen. Lursail horiek udalari esleitu zitzaizkion, Arrotxapeko Plan Partzialeko lur-birzatiketako proiektuan.

Lursailak udalaren lurzoru-ondarekoak dira, eta prezio itunduko alokairuko etxebizitza babestuak eraikitzeko erabiliko dira. Erosketa egin zuen enpresak bere mendeko enpresari laga zion, udalaren baimena tarteko, erositako lurzorua.

Udalaren ondasunen inbentario orokorrean ez da adierazten lurzoru-ondarea osatzen duten ondasun horien izaera bereizia eta loturazkoa. Era berean, udalak ez du eratu lurzuaren udal ondarearen erregistroa; horrenbestez, ez dago inolako idatzoharrik ondasun horien salmentari eta ondasunak hirigintza-legedian ezarritako helburuetarako erabiltzeari buruz.

Egiaztatu ahal izan da P-9A poligonoko lursailak saldu direla aplikatzekoak diren arauak betez,

nahiz eta balioespina Hirigintza eta Etxebizitza Alorreko idazkariak eginikoa izan.

Hona gure gomendioak:

- *Ondasunen balioespina teknikari adituek egin beharrekoa da.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa sortzea, eta bertan jasotzea sartzen diren lurrak edo dirua, bai eta Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritako xedeetarako justifikaturiko irteerak ere.*

- *Udal ondasunen inbentario orokorrean adierazi eta zehaztu behar dira udalaren lurzoru-ondarekoak direnak, bai eta haiek hirigintza-arloko legedian ezarrita dauden helburuei lotuta egotea ere.*

VI.4.UDALAREN AURREKONTU-GASTUAK.

2007ko ekitaldian udalak guztira aitorturiko betebeharrak 271,91 milioi euro egiten dute; hau da, 2006an baino ehuneko 19 gehiago.

VI.4.1. Langileak

2007ko ekitaldian, langileriaren gastuak 70,64 milioi eurokoak izan dira; hau da, udalaren gastu guztien ehuneko 26. 2006koekin alderatuta, ehuneko bosteko igoera izan dute. Gorakada hori, batik bat, Gizarte Zerbitzuen eta Emakumearen Alorrean eta Hiritarren Babeserako Alorrean izan da.

Gastu horiek aztertu ondoren, honako ondorio hauek azpimarratu nahi ditugu:

- *Plantilla organikoa eta lan-eskaintza publikoa.*

2007ko plantilla organikoan 1.379 lanpostu sartu ziren, eta 2006an, 1.378. 2007an 45 lanpostu gorakada eta 44ko beherakada izan da.

2007ko plantillako lanpostuak honako maila eta egoera hauek sailkatuta daude:

Maila	Lanpostu kopurua	Egoera aktiboan	Lanpostu huts erreserbadunak	Hutsak
A	116			
B	204			
C	634			
D	381			
E	5			
Lan-kontratudun aldizkakoak	3			
Honaino, guztira	1.343	773	158	412
Behin-behineko langileak	36		lzendapen askekoak	

Lanpostu guztien ehuneko 34 Udaltzaingokoak dira; ehuneko 25, erdi bana, Gizarte Zerbitzuen eta Emakumearen Alorrekoak eta Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Alorrekoak; eta % 9,5, Hiri Kontserbazioko Alorrekoak.

Plantillari buruzko exekuzio-arau osagarriek, plantillarekin batera onetsiak eta argitaratuak, plantilla organikoko postu-zerrendan sartu gabeko lanpostuak eta osagarriak arautzen dituzte.

Arau horietan lanpostu jakin batzuen birmoldaketa eta berrizendapen batzuk jasotzen dira, behar adina arrazoituta ez daudenak eta lanpostuaren eginkizunak aldatzearen ondorio ere ez direnak. Horrela, berariazko osagarriaren ordaina daukaten zenbait lanpostuk, hutsik gelditzen direnean, galdu egiten dute esleituriko osagarria.

2006an eginiko fiskalizazioan Ganbera honek adierazten zuen bezala, lanpostuak aldatzeko jardute-modu horrek, plantillarekin onetsiriko arau osagarri batzuetan babestuta egonik, langileriakudeaketaren arloko gardentasuna oztopatzen du.

2007an 412 lanpostu huts zeuden; hots, 2006an baino 19 gutxiago.

2007rako enplegu-eskaintza publikoa 2007ko urrian onetsi zen, eta urte horretako azaroko Nafarroako Aldizkari Ofizial batean argitaratu. Eskaintzan adierazten denez, barruan hartzen ditu planti-

lla organikoan hutsik agertzen diren lanpostu guztiak. 2007an Udaltzaingoko 33 agente-posturen deialdia onetsi zen. Halaber deitu ziren ikuskatzailer laguntzaileen 34 lanpostu, merezimendu-lehia-ketaren bitartez.

Gainera, 2007an zehar dei egin da 2004ko eskaintza publikokoak diren 35 lanpostutarako, eta 2006ko eskaintzako 49 lanpostutarako.

2007ko abenduaren 31n, indarrean zeuden aldi baterako kontratuen kopurua 348koa zen; horietatik, ehuneko 46 Gizarte Ongizate eta Kirol alorrean, eta ehuneko 12, Hezkuntza eta Gazteria alorrean. Kontratazio horietatik, 210ek plantillako lanpostu hutsak betetzen dituzte; horietatik, 92 kontratuk hiru urte baino gehiagoko iraupena daukate.

Beraz, bai plantillako lanpostu hutsak betetzeko aldi baterako kontratuen kopurua bai hiru urte baino iraupen luzeagoko kontratazioen kopurua handia da, nahiz eta 2006 eta 2007. urteetan zehar deialdiak egin izan diren 2004, 2006 eta 2007an eskainitako lanpostu hutsetarako.

- Aparteko lanorduen ordainsariak

2007an zehar 651 langileri 869.726 euro ordaindu zitzaizkien, jarraian azaldutako 56.083 aparteko lanordurengatik:

Kontzeptua	Lan-egunak		Jai-egunak	
	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa
Huteskundeak	376	5.084	1.791	29.716
Sanfeminak	87	1.102	15.499	270.681
Ohiz kanpokoak	12	205		
Arruntak	31.664	447.197	6.654	115.741
Guztira	32.139	453.588	23.944	416.138

Aparteko orduen guztizko kopuruaren ehuneko 84, Udaltzaingoa dira.

Horrez gain, 27 pertsonak 418 aparteko lanordu egin zituzten, atsedeen-denborarekin ordaindu zirenak.

Aparteko lanorduengatik ordaindutakoaren berrikuspenean, honakoa detektatu da:

Lanaldiaren luzapeneko osagarria jasotzen duten hiru langilek eta dedikazio eskusiboa daukan beste batek aparteko lanorduak egin eta kobratu zituzten, legediak ezarritakoaren kontra.

Udalak ofiziozko berrikuspen-prozedura hasi du lanaldiaren luzapeneko osagarria edo dedikazio eskusibokoa esleituta zeukaten funtzionarioei aparteko lanorduak ordaintzearen inguruan ⁽²⁾.

(2) Lerrokada hau 4. alegazioaren bidez aldatu da

1992an udalak alkatetzako dekretu bat onetsi zuen, zeinean ezarri baitzuen ezen langile bakoitzak urtean egin ahalko duen aparteko lanorduen gehieneko kopurua 50ekoa izan den dela, behar bezala justifikaturiko salbuespenetan izan ezik.

Aparteko lanorduen kopurua	Pertsona kopurua	Lanordu kopurua, guztira
5etik 200era bitartean	236	23.276
201etik 400era bitartean	53	13.988
401etik 600era bitartean	10	4.731
601etik 800era bitartean	4	3.086
801etik 1.000era bitartean	1	995
1.000tik gora	2	2.646
Guztira	306	48.722

Datu horiek ikusirik, gehiegizkoa deritzogu udaleko langileek lan egindako aparteko orduen kopuruari; izan ere, 50 orduko urteko gehieneko muga ez ezik, kasu batzuetan urteko lanaldia bera ere gainditzen du.

Egiaztatu ahal izan da ezarritako mugaz harago aparteko lanorduak egitearen zergatiak ez duela zerikusirik, kasu askotan, aparteko eta presako lanak egin beharrezkin, ez eta ezbeharren edo bestelako kalteen prebentzio- edo konponketa-lanak egitearekin ere.

Oro har, aparteko lanorduak egin ahal izateko langile bakoitzari aurretiazko baimena eman izanaren konstantziarik ez dago.

- **Udal-montepioa**

Udal montepioaren ardurakoak diren pentsio-plan indardunetatik eratorritako betebeharrak ez dira zenbatetsi, eta, ondorioz, haietarako zuzkidurarik ere ez da egin.

2007an, udal-montepioaren kargura 903 pentsio-hartzailerik ordaindutako erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioen kostu garbia 11.117.596 eurokoa izan zen; hots, 2006an baino ehuneko bost gehiago.

Hona gure gomendioak:

- *Lanpostu-sorkuntza eta amortizazioa egitea plantilla organikoa aldatuz, lege ezarritako onepen- eta publikitate-betekizunak betez.*

- *Udaleko giza baliabideak planifikatzea udal-zerbitzuen langileria-beharrizanen arabera.*

- *Plantilla organikoan lanpostu guztiak zerrendatzea, plantilla gauzatzeko arau osagarrietan*

Ondoko taulan erakusten da 2007an 50 aparteko lanordu baino gehiago egin dituzten 306 pertsonen banaketa, tartetan antolatua:

jasotakoak barne, behar bezala ordenaturik eta sailkaturik eta bakoitzak dituen osagarriak aipaturik.

- *Aldi baterako kontratazioen bidez beteta dauden lanpostu huts erreserbatu gabeak aztertzea, lanpostu horiek urteroko lan-eskaintza publikoetan sartzeko eta lanpostu horiek nahiz bete gabeko lanpostu hutsak betetzeko deialdiak egiteko.*

- *Udal montepioaren ardurakoak diren pentsio-eredu indardunetatik eratorritako betebeharrak aktuarialak zenbatetsi eta haietarako zuzkidurak ipintzea.*

- *Kontrolatu behar da aparteko lanorduak lanalditik kanpo eginiko salbuespenezko zerbitzuetarako direla, ez dutela langile bakoitzarentzat urteko 50 orduen muga gainditzen, non eta ez diren behar bezala justifikaturiko ohiz kanpoko, salbuespenezko edo premiazko kasuak, eta zerbitzu horiek ez dituztela egiten dedikazio eskusiboren edo lanaldi-luzapenaren osagarria kobratzen duten langileek. Jai-egunetan egindako aparteko lanorduak lan-kontratudun langileei ordaindu behar zaizkie udal-hitzarmenean ezarritakoari jarraituz.*

- *Ekitaldiko aurrekontuari atxikitako langileria-eranskinean sartzeari bete beharreko lanpostu hutsen eta kontratazio berriei buruzko aurreikuspenak.*

- *Administrazio-kontratua daukatenei ordaintzea betetzen duten lanpostuari dagozkion ordainketa-kontzeptuengatik.*

- *Langileei buruzko espedienteetan sartzeari kasuan kasuko langilearen inguruabar pertsonal*

guztiak eta harekiko emandako administrazio egintzak.

- *Berriro ere gomendatzen dugu berrikusi eta, kasua bada, erregularizatzea "Ogasun publikoa, PFEZaren hartzekodun" eta "Funtzionarioen osasun laguntza" izeneko kontuetan aurreko urteetatik datozen saldoak, 140.977 eurokoa eta 56.529 eurokoa, hurrenez hurren.*

VI.4.2. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan

2007an ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuak 69,37 milioioak izan ziren; hots, aurreko urtean baino ehuneko bat gehiago. 2007ko ekitaldian sorrarazitako gastuen guztizkoaren ehuneko 26 egiten dute.

Honako gastu hauek berrikusi dira:

Kontzeptua	Aitorturiko betebeharrak
Bide publikoa garbitzea	7.687.323
Etkez etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ)	2.274.130
Berdegunek mantentzea	1.836.700
Ikastetxe publikoen garbiketa	1.665.914
Zoladurak eta gune publikoak mantentzea	1.249.999
Publizitatearen kudeaketa	1.019.603
Argi publikoak	920.798
Aranzadi kiroldegiaren mantentzea	771.722
Elikagai-hornidura, etkez etxeko laguntza zerbitzua	486.526
Arrotxapeko eta Azpilagañako haur eskolak	473.932
Mendillomiko trinkete eta kiroldegiaren mantentzea	229.372
Joko-esparruen kontserbazioa	137.525
Sanduzelai kirol hiriaren kudeaketa	101.000

Egiaztatu dugunez, oro har, kontratazio-espeditarearen izapidetzeak eta kontratuen esleipen eta exekuzioak kontratu-legedia bete dute, eta gastuak baimenduta, justifikatuta eta egokiro kontabilizatuta daude.

Hala ere, hobetzeko modukoak diren honako jardun hauek azpimarratuko ditugu:

- **Publizitatearen kudeaketa:** 2007an emandako deskontuak, guztira 203.414 euro, 2008ko dirusarrera gisa kontabilizatu dira, 2007ko publizitatearen izandako gastu-gutxitze gisa izan beharrean.

- **Ikastetxe publikoen garbiketa:** lau ikastetxetan, eginiko gastuak ehuneko 10 baino hein handiagoan gairitu zuen kontrataturiko zenbatekoa, baina ez zen izapidetu kontratua aldatzeko inolako espeditierik.

- **Etkez etxeko laguntza zerbitzurako prestatuturiko elikagaien hornidura:** kontratu honen exekuzioaren zenbatekoa ehuneko 33 handiagoa izan zen esleituriko zenbatekoa baino, eta horrek 111.731 euroko gehikuntza eragin zuen. Kontratu-aldaketa eta gastu-onespena egin ziren horniketara egin ondoren.

2006an etkez etxeko laguntza zerbitzuari eginko horniketarako 40.603 euroko zenbatekoa egin

zutela kontabilizatu da. Ez da ageri Osoko Bilkurak erabakirik hartu zuenik 2006ko gastuetarako 17.102 euroko ohiz kanpoko krediturik edo kreditugehikuntzarik onesteko, nahiz eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak halaxe ezartzen duen iraganeko ekitaldietako gastuak izapidetzeko.

- Ez dira kontabilizatu MUGAren 13.582 euroko gastu batzuk.

- **Telefono bidezko arreta zerbitzua:** Udalak onetsi zuen Animsa SA enpresari enkargu bat egitea zerbitzu hori emateko, horrela erregularizatuz 2001ean sinaturiko eta oraindik aldatu gabeko kontratuan izandako aldaketak. Telefono bidezko arreta-zerbitzuarengatik 2007an izandako gastua 393.191 eurokoa izan zen; hots, 2006an baino ehuneko 26 handiagoa.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratuen aldaketa izapidetu behar da kasuan kasuko prestazioa egin aurretik, eta araudian ezarritako jarduketa guztiak bere barrenean hartuko dituen espeditante baten bitartez.*

- *Gastuak sortzapen-printzipioari jarraituz kontabilizatu behar dira.*

VI.4.3 Inbertsioak

Udalaren inbertsioen exekuzioa honako hau izan da:

Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Kreditu-gerakina	2008ko ekitaldira ekarritako kreditu-gerakina
103.471.554	19.178.964	122.650.518	96.369.223	26.281.295	11.534.367

2007an eginiko inbertsioek 96.369.223 euroko zenbatekoa dute, udalaren gastu guztien ehuneko 35 egiten dute, eta haien betetze-maila behin betiko aurrekontuaren ehuneko 79koa da, inbertsioen kapituluaren kontabilizatu direlako 18.641.076 euro, Hirigintza Gerentziari Arrosadia-Lezkairuko udal-lursailen urbanizaziorako eginiko ekarpenari

dagozkionak. Ekarpene horretatik, 2008an bertan behera utzi ziren 2.156.790 euro, eta txosten honen prestaketa-garaian, gainerakoa Gerentziari ordaindu gabe zegoen.

2007an fiskalizaturiko inbertsioak honakoak izan dira:

INBERTSIOA	Esleipen-prezioa	Noiz esleitu/ epea	Prozedura/ Esleitzeko irizpideak	Aitorturiko betebeharrak 2007
Hamesiak zaharberritzea	1.474.398	2007 urtebete		1.156.123
General Chinchilla Musika Eskola	4.806.471	2007 18 hilabete	Irekia /eskaintza onenarentzat	647.351
Goriti eta San Fermin kaleen berrurbanizazioa.	4.356.398	2007 15 hilabete		1.345.920
Autobus-geltoki berriaren ingurunearen egokitzapena	946.246	2007 2 hilabete	Negoziatua / zuzeneko esleipena	1.018.935
Datuak prozesatzeko zentroko obrak	1.712.680	2006 7 hilabete		1.785.240
Yamaguchiko iturria	361.200	2006 110 egun	Irekia/ lehiaketa	289.595
Jesus eta Maria eliza zaharberritzea	1.390.793	2006 7 hilabete		1.562.700
Bidegorria	1.145.396	2006 4 hilabete	Irekia, eskaintza onenarentzat	1.229.253
Altzariak				506.763

Oro har, kontratazio-espediten tramitazioa eta berrikusitako kontratuen esleipena egin ziren kontratu-legediari jarraituz.

Kontratuen exekuzioari eta aldaketari dagokienez, gehienbat honako hauek aurkitu dira: obrak egiteko epeari dagozkion ez-betetzeak, aldaketa ugari, kontratu-aldaketaren espedita kontratua-ren betetzearen ondoren izapidetzea, eta ziurtagiriak egin eta ordaintzearen atzerapenak.

Kontabilitatean, gastu-proiektuek ez dituzte jasotzen aurreikusitako dirusarrera eta gastu guztiak, eta finantzaketa-desbiderapenak ez dira modu egokian kalkulatu.

Gainera, honako hauek aipatu behar dira:

- Gorriti eta San Fermin kaleen berrurbanizazioa: 2007an, udalak Iruñerriko Mankomunitatetik ez zituen haren kontura egindako obrak kobratu, ez baitzizkion fakturatu 2007an egindako eta ziurtapena lortutako sare-lanak.

- Autobus-geltoki berriaren ingurunearen egokitzapena: obra hori autobus-geltokiaren esleipen-hartzaileari esleitu zitzaion, obra osagarritzat jo eta izapidetu baitzen. Obra osagarri horretan zera txertatu zen, Ziadadelako lubanarroetan sarbide-arrapala bat eraikitzea, pertsona ezgaituentzat irisgarriak izan zitezten. Arrapala hori ez zen aurreikusitako proiektu nagusia; bertan, lubanarroetara iristeko eskailerak baizik ez dira zehazten (3).

Gastuak egin dira, ziurtaturiko guztizkoaren ehuneko 41ekoak, obrak hartu ondoren. Udaleko teknikariek adierazi digutenez, hartze partziala izan zen. Alabaina, horri buruzko ezer ez da esaten aktan, eta obren gainerakoa hartzeari buruzko aktarik ere ez da agertzen.

Yamaguchiko iturria: obren proiektua eta egitea 2006ko abuztuan kontratatu ziren, eta urte bereko abenduan, proiektuaren prestaketa-fasean, 58.600 euroko zenbatekoa egiten zuen aldaketa bat onetsi zen (zenbateko hori bat dator esleipen-prezioak lizitazio-prezioarekiko izandako beherapenarekin), aurreproiektuak izandako hobekuntza hauen ondorioz: jauzi-iturri parabolikoak eta gainazalaren zati baten zoladura (4).

Behin-behineko harrera-aktan, zeina 2007ko maiatzean sinatu baitzen, iturria funtzionamenduan eta erabiltzeko moduan zegoela jo zen, 2007ko eguberrien ondoren zuzendu beharreko akats batzuekin, betiere. Behin betiko harrera-akta hamahiru hilabete geroago sinatu zen, 2008ko ekainean. Baldintza ekonomiko eta administratiboen orriak 20 eguneko epea ezartzen du harrera-aktan adierazitako akatsak zuzentzeko (5).

- Zuzenean esleitu ziren, kopurua zatikatuz, honako gastu berdinak, egun berean eta hornitzailerarekin eginikoak:

Kontzeptua	Zenbatekoa, guztira	
Eguberrietako apaingarriak	24.555	15.000 euro baino zenbateko txikiagoko 2 faktura
Oroitidazkia idatzi eta inprimatzea	19.133	15.000 euro baino zenbateko txikiagoko 2 faktura
"Cuarticos de San Martí n" obrak	51.411	3.000 euro baino zenbateko txikiagoko 19 faktura, bi kontusail ezberdinetan kontabilizatuak
Zakamontziak	29.801	15,00 euro baino zenbateko txikiagoko 2 faktura
Zakamontziak	29.991	15.000 euro baino zenbateko txikiagoko 2 faktura
Obrak Juslarrochan	128.016	40.000 euro baino zenbateko txikiagoko 6 faktura Bi kontusail ezberdinetan kontabilizatuak

(3) Lerrokada hau 6. alegazioaren bidez aldatu da.

(4) Lerrokada hau 6. alegazioaren bidez aldatu da.

(5) Lerrokada hau 6. alegazioaren bidez aldatu da.

Kontratuei buruzko legeak ezartzen du kontratuaren xedea ezin izanen dela zatikatu bere zenbatekoa jaitsi eta horrela itzuri egiteko publizitate-baldintzei edo dagokion esleipen-prozedurari.

Halaber zatikatu dira, 3.000 euro baino zenbateko txikiagoetan, izaera bereko gastuak, hornitzaile berarekin honako kontzeptuetan eginiokoak: obretarako materiala, zenbait konponketa, turismo-seinaleak eta obra-erreportaria fotografikoak. Kasu horietan ez da krediturik erreserbatu kasuko kontusailean.

- Inbentarioari dagokionez, atzeman da ezen inbentariatzeko dagoen ibilgetuko kontuak 2002 baino lehenagoko inbertsio-gastuak jasotzen dituela, 394.338ko zenbatekoa dutenak eta inbentariatu gabe daudenak.

Inbertsioei dagokienez, hona gomendioak:

- *Kontratuaren xedea zehaztasunez definitu behar da obra-proiektuetan, kontratu-aldaketak ahal den neurrian mugatzeko.*

- *Kontratu-aldaketako espedientea izapidetu eta onetsi behar da kasuko obrak egin aurretik.*

- *Obren exekuzioaren jarraipena egitea, eta horrela bermatu obrak egiten direla administrazio-baldintzen orriak eta proiektuak ezarritakoari jarraituz; kasua bada, kontratistari ezarri behar zaizkio lege zehazturiko zehapenak.*

- *Kontratuaren zenbatekoaren arabera esleipen-prozedurari jarraitzea, kontratuaren xedea zati txikiagoetan deskonposatu gabe.*

- *Ziurtagiriak egin eta ordaindu behar dira baldintza-orrietan ezarritako epeetan.*

- *Inbertsioen urteroko aurrekontu-egitaraua hobetu behar da, kontuan harturik inbertsio horien esleipen eta exekuziorako aurreikusitako epeak.*

- *Baliabide atxikien bitartez finantzaturiko kreditu-gerakinak erantsi behar dira, non eta ez zaion uko egin gastu-exekuzioarekin jarraitzeari, eta kontabilitatearen bitartez haien jarraipena eta kontrola egin behar dira.*

- *Dagokion kontusailean kredituari eutsi behar zaio gastua egin aurretik, kontratu-legediak zehaztutako kasuetan.*

- *Gastu-proiektuen kontabilitate-modulua egokitu behar zaio kontabilitate-instrukzioan ezarritako egiturari.*

- *Inbentariatzeko dagoen ibilgetu-kontuaren saldoa aztertu eta erregularizatu behar da.*

VI.4.4 Transferentzia-gastuak

Transferentziek eta udalak 2007an emandako dirulaguntza arrunt eta kapitalekoek 11,59 milioi eta 17,17 milioi euro egiten dituzte, hurrenez hurren; osotara, udalaren gastuen guztizkoaren ehuneko 11 egiten dute. Aurreko urtearekin alderatuta, transferentzia arruntek ehuneko 8 egin dute behera, eta kapital-transferentziek ehuneko 146ko gorakada izan dute.

Udalak ez du onetsi dirulaguntzei buruzko legeak eta udal ordenantza orokorrak ezarritako dirulaguntza-plan estrategikoa.

Honako dirulaguntza hauek ikuskatu dira:

Kontzeptua	Gastua 2007an	Esleipen-prozedura
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK		
Irabazi-asmonik gabeko gizarte-entitate eta -kolektiboak	461.813	Norgehiagoka
Portland San Antoniori	198.000	Zuzena
Turismoaren sektoreko enpresa txiki eta ertainei eta erakundeei	114.750	Norgehiagoka
Volkswagen-Caja Navarra fundazioari	21.700	Zuzena
Familiei, kontsumo txikiko lanparetarako	17.398	Gauza bidezko laguntzak
Nafarroako Unibertsitateari, nazioarteko telebista-jaialdirako	12.000	Zuzena
Kapital-transferentziak		
Hirigintza Gerentziari, Monjardí n eta Eguesibar kaleetako errepidearen luzapena gauzatzeko	5.474.939	
Pamplona Centro Histórico SArí, honako hauetarako:		
- etxebizitza-erloto jarduketak	3.700.000	
- San Agustín kirol-instalazioak	1.444.769	
Zenbait erakunderi, erabilera publikoko eremu pribatuak berrurbanizatzeko	346.089	Norgehiagoka
Familiei, etxebizitzak zaharberritzeko	236.854	Banan-banako ebaluazioa
Haur eskolei	198.762	Zuzena
Geltokiko Plaza berrurbanizatzeko entitate bati	150.556	Zuzena

Norgehiagokaren eta banan-banako ebaluazioaren bitartez emandako dirulaguntzak publizitate bitartez izapidetu dira. Zuzenean eta publizitaterik gabe emandakoak, hitzarmenetara joz bideratu dira.

Ikusi ahal izan dugu ezen, oro har, dirulaguntzak eman, kudeatu eta justifikatzeko prozedurak gauzatu direla errespetatuz dirulaguntzei buruzko ordenantza nagusian, eraikinen zaharberritzeari buruzko ordenantza berezian eta dirulaguntzei buruzko lege orokorrean ezarritakoa, salbu eta honako kasu hauetan:

- SDC San Antonio elkartearentzako dirulaguntza izenduna: dirulaguntza hori arautzen duen hitzarmenean ezartzen denez, dirulaguntza justifikatu da defizita agertzen duten egoera-orri finantzario eta auditatu gabeak aurkeztuz.

Ez da inon agertzen udalak berrikusi zituenik diruz lagunduriko jarduerari dagokionez San Antonio elkarteak aurkeztu zituen gastu-frogagiriak.

2009an, udalak San Antonio elkarteari jakinarazi zion balioespen-txosten bat egitera zihoala, gastu-justifikazioari buruzkoa.

- Volkswagen-Caja Navarra Fundazioarentzako dirulaguntza izenduna: ez dira aurkeztu aginduzkoak diren frogagiri guztiak, eta justifikazioa berrikusi eta onetsi izanaren konstantziarik ere ez dago.

2009an, aipaturiko fundazioari udalak eskatu zion osa zezala emandako dirulaguntzaren froga-dokumentazioa.

Honakoak gomendatzen ditugu:

- *Dirulaguntzei buruzko plan estrategikoa prestatzea.*

- *Dirulaguntza-eskaerarekin batera exijitzea bai dokumentazioa bai deialdian ezarritako baldintzen betetzea.*

- *Dirulaguntza-emateari buruzko ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, deialdian ezartzen den bezala.*

- *Berrikusi behar dira, diruz lagundutako jarduerari dagokionez, dirulaguntzaren hartzailak aurkezturiko gastu-frogagiriak, era horretan egiaztatzeke ezen dirulaguntzaren xedea guztiz betetzen dela. Baldin eta justifikazioa egiten bada justifikazio-kontu baten bitartez, kontu hori azaldu beharko da dirulaguntzei buruzko ordenantza nagusian ezarritako dokumentazio guztiarekin batera. Baldin eta justifikazioa egiten bada kontabilitateko egoera-orriak aurkeztuz, egoera-orri horiek behar bezala onetsita eta auditatuta egon beharko dute.*

VI.4.5 Zerbitzu informatikoak

Animsa S.A.k, zeina ehuneko 78,06an udalaren parte-hartzea daukan enpresa publikoa baita, udaleko sistema informatikoen mantentze-lana egiten du, aplikazio berriak eraikitzen ditu, eta Iruñeko Udalarentzako hardwarea eta softwarea erosten du.

2007an udalak Animsa S.A.ren ardurapean utzi zuen 5.046.255 euroko zenbatekoa egiten duten lanak egitea. Horietatik, 3.482.292 euro exekutatu ziren, honako hauei dagozkienak:

Kontzeptua	Ardurapean utzitako zenbatekoa, 2007an	Gastua, 2007
Zuzeneko zerbitzuak	2.658.791	2.658.791
Lankidetzak profesionalak	92.800	23.538
Mantentze-lanak (azpiegitura, ekipoak, softwarea)	453.959	395.847
Datu-sarearen erreformak	23.200	19.128
Informatikako ekipoak alojeran	11.964	11.964
Informatikako ekipamendu material suntsikorra	116.000	115.188
Komunikazio-lineen homidura	56.275	55.487
Informatikako zerbitzuen programa, guztira	3.412.989	3.279.943
Hardware ekipamendua	951.375	80.155
Software ekipamendua	212.931	23.722
"Ciudades singulares" proiektua	318.020	0
Musika-eskolaren kudeaketa eta IP telefonia-sistemaren ezarpena	150.940	0
Instalazio eta azpiegitura inbentariagarriak	0	98.472
Guztira	5.046.255	3.482.292

Enkargu horri dagokion 3.482.292 euroko gastuaz gain, 2007an 497.692 euro gastatu dira hardware eta software ekipamenduan, 2006an eginiko enkarguari dagozkionak.

Zuzeneko zerbitzuak (2007an, 2.658.791 euro) dira honakoetan jarduten duten Animsako langileei dagozkienak:

- Informatikako sistemen funtzionamendu arrunta, 2.046.566 euro.

- Informatikako aplikazio berriak eraikitzea, 612.225 euro. Zerbitzu horiei dagokienez, enkarguak ezartzen du ezen proiektu bakoitzean ongi definituriko helburuen lorpen-mailari dagokionez kontrolatuko direla. Fakturazioa ez da egiten proiektu bakoitzeko helburuen betetze-mailaren arabera. Informatikako arduradunak adierazten du: "oro har, proiektuak aurreikuspenen arabera gauzatu dira."

010 eta 012ko datu-baserako aplikazio informatiko baten erosketa ikuskatu dugu ("informa" proiektua). Animsak 2005ean esleitu zuen erosketa hori, prozedura negoziatuaren bitartez, 82.696 euroko zenbatekoan. Esleipena egin zenetik urtebete igaro zenean (lau hilabeteko gehieneko exekuzio-epea ezarri zen), Animsak bi faktura aurkeztu zituen, 96.582 euroko zenbatekoa zutenak (haietako bat da hobekuntzei dagozkien 13.885 eurokoa). Informatikako arduradunak errefusatu egin zituen, eta deuseztatu egin ziren. 2007an faktura horiek berak aurkeztu ziren, eta azkenean onespena eman zitzaien. Horrez gain, 2007an

13.706 euro ordaindu zitzaizkion Animsari hobekuntzen ondoriozko gastu gisa. Informatikako arduradunak ez zuen diru horri buruzko irizpenik eman. Proiektu honen guztizko kostua, 2006an aurkezturiko fitxaren arabera, 73.977 eurokoa zen, eta guztizko gastua 110.288 eurokoa izan da; hots, aurreikusitakoa baino ehuneko 49 gehiagokoa.

"Ciudades singulares" proiektua

Horren xedea da toki-administrazioetan informazioaren gizartea garatzea, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak diruz lagundutako Avanza planaren esparruan. Horri buruz, hitzarmen bat sinatu zuten Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak eta Fiteroko Udalak.

"Ciudades singulares" proiektuari dagokionez, udalak Animsa enpresaren ardurapean jarri zuen 668.604 euroko zenbatekoa egiten zuten lanak egitea; diru kopuru horretatik, 318.020 euro 2007an gauzatzekoak ziren, eta 350.584, 2008an.

Gainera, 2007an Iruñeko Udalak 288.946 euroko zenbatekoa egiten zuten gastuak ordaindu zituen, Animsaren zuzeneko zerbitzuak zirela-eta. Zerbitzu horiek ez zeuden aurreko enkarguan sartuta, baina aipaturiko proiektuari egotzi zitzaizkion; horrenbestez, proiekturako aurreikusitako guztizko kostua 956.986 euro egitera iritsi zen.

Guztira, 929.142 euro gastatu dira, Fiteroko Udalean eginiko lanei dagozkien 15.000 euro barne, eta ez dira egin aurreikusitako lan guztiak.

Proiektuaren betetzea honakoa izan da:

	2007ko gastua, zuzeneko zerbitzuak	Enkarguan aurreikusitakoa	Gastua, 2007	Gastua, 2008
Ekonomia eta finantzen kudeaketa-sistema	80.060	309.940	0	309.920
Herritararen ataria		55.500	0	55.500
Urruneko zerbitzugunea		84.050	0	109.040
Iruñean ezartzea	208.886	158.114	0	150.736
Fiteron ezartzea		21.000	0	15.000
Proiektuaren zabalkundea		40.000	0	0
Guztira	288.946	668.040	0	640.196

2008. urtearen amaieran, kudeaketa ekonomiko eta finantzarioko sistema informatikoa eta proiektuan sartutako gainerako jarduketak bukatu gabe zeuden, eta enkarguan aurreikusitako zenbateko guztia gastatuta zegoen.

Udalak 350.000 euroko dirulaguntza jaso du, "ciudades singulares" proiektuaren finantzaketarako aurreikusitako 400.000 euroetatik.

Horren guztiaren ondorioztapen modura: "ciudades singulares" proiektuak ez du plangintzarik izan kostuari, denborari eta onurei dagokienez; baliabide ekonomiko guztiak xahutu dira aurreikusitako helburuak bete gabe; horrez gain, aurreko urteetan zenbait gastu egin dira aplikazio informatiko berberen garapenerako, zeinen ezarpena eten egin baita, eta berriro ere proiektu honetan sartu dira.

Hona gure gomendioak:

- *Aplikazio informatiko berrien garapen-fase guztietan barne-kontrola indartzea, horrela bermatze aldera aurreikusitako helburuak betetzen direla*

eta kostu ekonomikoak ez direla neurrigabeki igozen.

- *Aplikazio informatiko berriak garatzean, erabilerar-erlo ezberdinen beharizan informatikoak, aplikazio berriak eskainiko dituen funtzionaltasunak eta haren bideragarritasuna identifikatu eta definitu behar dira; halaber, proiektu berriaren premia justifikatu behar da, eta planifikatu behar da kontuan izanik kostua, denbora eta horren ezarpenaren onurak.*

- *Aplikazio informatiko berrien garapenerako zuzeneko zerbitzuen fakturazioa ezarri behar da proiektu bakoitzaren betetze-mailaren arabera.*

VI.5. UDALAREN EGOERA-BALANTZEA

Iruñeko Udalaren 2007ko egoera-balantzeko honako multzo hauek fiskalizatu ditugu:

VI.5.1 Itxitako ekitaldietako aurrekontu-zordunak

2007ko abenduaren 31n, itxitako ekitaldietako zordunen saldoa 10,69 milioi eurokoa zen, eta honako urte hauetatik zetorren:

Urteak	Saldoa 2007/12/31n
1987tik 1991ra	10.847
1992	32.495
1993	43.081
1994	41.855
1995	110.649
1996	73.427
1997	64.037
1998	180.140
1999	357.243
2000	371.914
2001	498.443
2002	1.802.768
2003	819.902
2004	1.277.348
2005	1.556.028
2006	3.451.290
Guztira	10.691.467

Detektatu dugu kobratzeke gisa agertzen direla, oker agertu ere, MUGA aparkaldi mugatuaren kontzeptuko 17.085 euro.

2007an zehar kobratu zitzaizen 2006ko zordunen ehuneko 77ri, 2005eko ehuneko 50i eta 2004 eta aurreko urteetako ehuneko 16ri. 273.898 euroko zenbatekoa egiten duten zorrak deuseztatu ziren.

2007ko ekitaldiaren amaieran, kobratzeke zeuden dirusarrerak 10,69 milioi egiten zuten. Zenbateko horren ehuneko 50en kobrantza premiamendu-bidetik izapidetzen da.

Gainerakoa, 5,37 milioi euro, nagusiki honako kontzeptu hauei dagokie:

Kontzeptua	Saldoa 2007/12/31n
Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren hobariak	1.615.837
Lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	687.810
EIOZ	22.332
Obrak eta instalazioak, partaideen kargura	1.146.910
Itzulketak	358.612
Dirulaguntzak	935.922
Ondare-dirusarrerak	87.430
Finantza-aktiboen aldaketa	23.651
Inbertsio errealak besterentzea	1.420

Ikusi ahal izan dugu ezen, oro har, betearazpen-bidetik eginiko kobrantza-kudeaketak bete egiten duela araudian ezarritako prozedura, eta berandutza-errekargu eta -interes egokiak aplikatzen direla.

Hala ere, agertzen dira halako tributu-zorrak, lurren balio-igoeraren gaineko zergarenak eta EIO-Zenak nagusiki, bai eta zuzenbide publikoko beste dirusarrera batzuk ere, zeinen kobrantza ez baita premiamendu-prozeduraren bidetik kudeatzen, eta, bide horri ekin izan zaionean, prozedura hasi da, kasu batzuetan, borondatezko kobrantza-eparen amaiera eguna pasa eta askoz ere berandua-go.

Kobrantza-betearazpeneko epean izandako zor-deuseztapenei dagokienez, oro har justifikatuta daude, nahiz eta gertaera eragilea izan zenetik berandutza nabarmenez onetsi ziren.

2006an Animsaren ardurapean utzi zen betearazpen-bideko dirubilketa-kudeaketarako aplikazio informatiko baten garapen eta ezarpena, bai eta "betearazpen-bidean dauden zorren kontabilizazioa" deritzon moduluaren garapena ere. Proiektu

hori ez da ezarri, "ciudades singulares" proiektuan jasotako aplikazio informatikoak garatzearen zain.

Dirusarrera-aurrekontuko 3. kapituluko tributu, prezio publiko eta bestelakoak ez diren zordunak, guztira 1.060.020ko zenbatekoa egiten dutenak, ez dira kobratzen zailtzat jo, eta ez dira diruzaintza-gerakinetik deskontatu.

Hona gure gomendioak:

- *Tributu guztiak premiamendu-bidetik kudeatzea.*

- *Itxitako ekitaldietakoak izanik premiamendu bidezko dirubilketa-prozeduran sartuta ez dauden zorren jarraipena egitea eta haiek kobratzeko urratsak egitea.*

- *Halako prozedurak taxutzea non modua emanen baitute itxitako ekitaldietako zor guztiak kontabilitate-sistematik identifikatzeko.*

VI.5.2. Kontu finantzarioak

Udaleko kontu finantzarioen saldoa, 2007ko abenduaren 31n, 20.701.419 eurokoa da, eta honako kontu hauei dagokie:

	2007-12-31ko saldoa	2006-12-31ko saldoa
Kutxa	28.516	21.409
Kontu korranteak	5.606.846	28.396.403
Kontu finantzarioak	0	19.994.616
Kreditu-kontuetako kreditu erabilgarria	15.066.057	12.033.011
Guztira	20.701.419	60.445.439

Diruzaintzaren egoerak okerrera egin du 2006. urtearekin alderatuz gero. Kontu korranteetako saldoak ehuneko 80ko beherakada izan du, finantza-entitateetan egindako eperako ezarpenak kendu egin dira, eta guztira 20 milioi euroko zenbatekoa egiten duten hiru diruzaintza-mailegu hitzartu dira.

2007an, dirubilketako kontu murriztuetako kobrantzak hasi dira aurrekontuz kanpoko dirusarrerak gisa adieraziak izaten. Kontu murriztuen saldoa, 155.542 euro 2007ko abenduaren 31n, ez zen sartu diruzaintzako egoera-orrian.

Ikusi dugu akatsak izan direla isunak, zehapenak, garabi-tasak eta udaltzaingoak eginiko bestelako kobrantza batzuk sartzen direneko eskudirukutzaren kudeaketan. Horrela, kutxa horrek arduradun bakarria izatearen ondorioz, arduradun hura kanpoan egoten zenetan, eginiko kobrantzak finantza-entitateetan ez ziren aldiro sartzen, eta 260.806 eurorainoko eskudirua pilatzera iritsi zen.

Hona gomendioak:

- *Hiritarren babeserako alorreko eskudirukutzako diru kantitate handia kontuan izanik, eta diru horren segurtasuna eta osotasuna bermatze-arren, bankuetan egunero sartu beharra dago kutxako dirua.*

- *Diruzaintzako egoera-orrian sartu behar dira dirubilketa-kontu murriztuak.*

VI.5.3 Aurrekontuko hartzekodunak

2007ko abenduaren 31n hartzekodunen ataleko diru-kantitatea 65.968.823 eurokoa da. Horretatik, 63.996.533 dira 2007koak, eta gainerakoa, 1.972.290, 1991tik 2006ra bitarteko epekoa da.

Saldo-berrespena guztira 51 hartzekoduni eskatu zitzaizen, kontabilitate-datuaren arabera 21.189.630 euroko zenbatekoa kobratzeke zeukatenak. Horietatik, 820.204 euroko zenbatekoa egiten duten sei hartzekodunek ez digute erantzun.

Kontabilitate-saldoaren eta hartzekodunek berretsitako saldoaren arteko aldeak aztertuz aurkitu dugu badaudela 2007ko fakturak, 2008an izapidetuak, sei hilabeterainoko atzerapenarekin (201.014 euro, guztira) bai eta urtebetekoarekin ere (23.248 euro egiten duten fakturak).

Hona gure gomendioak:

- *Betebeharrak aitortzea haien sortzapenaren arabera.*

- *Ordaintzeke dauden 1991tik 2005era bitarteko gastuei dagokien 154.684 euroko saldoa aztertu eta araztea, hala behar izanez gero.*

VI.5.4 Aurrekontuz kanpoko eragiketak

Aplikatzeko dauden dirusarreraren eta aplikazio aurreratuko kontuek jasotzen dituzte, hurrenez hurren, aurrekontuari aplikatzeko dauden kobrantzak, batetik, eta bankuek hamabostaldi eginikoa izanik udalari transferitzeko daukaten zerga-bilketak, bestetik.

Kontu horiek egiten dira kobrantzak eta haien aurrekontu-aplikazioa kontrolatzeko asmoz. Haien kontabilitate-funtzionamendua elkarlotuta dago; izan ere, eginiko eragiketek kasu askotan eragina izan ohi dute bi kontu horietan.

2007ko ekitaldia ixtean, honako saldo hauek kitatzeko agertzen dira:

Kontua	Kontzeptua	Saldoa 2007/12/31n
55900	ADK-AEDDA dirusarrerak	-84.351
559106	AEDDA dirusarrerak	-138.216
567001	ADK/AEDDA dirusarrerak, 2005	160.628
55998	ADK/gordailutza aldeak, 2003-2004	-1.257
559103	Neurritz gaindi aplikaturiko dirusarrerak	12.349

ADK: Aldizkako Dirusarreraren Kontabilizazioa

AEDDA: Aldizkako ez diren dirusarreraren aitortpena

Hona gure gomendioak:

- *Aplikatzeko dauden dirusarreraren eta aplikazio aurreratuko dirusarreraren kontuen saldoa aztertu eta erregularizatzea.*

Saldoa 2007/12/31n	
Fidantzak	2.728.386
Gordailuak	822.233

Fidantza-kontuak jasotzen ditu udalak jasotako fidantzak eta epe laburreko eskudiru-gordailuak.

Gordailu-kontuak jasotzen ditu izaera ezezaguneko dirusarrera jasoak eta nomina-atxikipenak, gehienbat. Egiatzatu dugu fidantzak ere sartu direla bertan.

Kontu horien saldoaren parte handi bat 2001 baino lehenagoko urteetatik dator. 2007an, kontabilitate-departamentuak saldoak aztertu eta txosten bat egin zuen, zeinean proposatzen baitzuen haiek erregularizatzea.

Hona gure gomendioak:

- *Fidantzen eta epe laburreko gordailuen kontuen saldoa erregularizatzea.*
- *Gordailu-kontuan kontabilizatzea gordailu irregular kontzeptuan jasotako eskudirua, eta fidantzak nahiz aplikatzeko dauden dirusarrerak erregistratzea dagozkien aurrekontuz kanpoko kontzeptuetan.*

VII. KIROL ZERBITZUKO PROGRAMEI ETA MUSIKA ESKOLARI BURUZKO ONDORIOZTAPENAK

Ganbera honek kirol-programen eta musika-eskolakoen ebaluazio bat egin du. Horri buruz, nabaria da udal zerbitzuen kudeaketaren ebaluazioa egin dadin udalak duen interesa, eta horren frogara aurreko urteetan eginiko kostu-azterlanak, adierazlearen ezarpenarako proiektu batean inplikatu izana eta zerbitzu-gutunaren onespina. Hala ere, jarduketa horien ezarpenari bultzada eman behar dio. Programa horien ebaluazioak muga gisa izan ditu helburu zehatz eta neurgarriak ez egotea, adierazlerik eza eta zerbitzuen kostua kalkulatzeko metodoa.

VII.1 DATU OROKORRAK

Nafarroako Comptos Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeak ezartzen du eraginkortasun-kontrola eginen dela aurreikusitako helburuen betetze-maila zehazte aldera, eta efizientzia-kontrola ere bai, zeinaren xedea izanen baita nola

Epe laburreko fidantzei eta gordailuei dagokienez, haien saldoak, 2007ko abenduaren 31n, honakoak dira:

erdietsi diren helburuak, gastua egiteari dagokion kostua mugatzearen ikuspegitik.

Funts publikoen kudeaketaren ekonomia, efizientzia eta eraginkortasuna ebaluatzeko, beharrezkoa da lortutako emaitzak adierazlearen bitartez neurtzea.

Udal zerbitzuak aurrekontuan adierazten dira gastuaren sailkapen funtzionalaren bitartez. Sailkapen funtzional horren desagregazio gisa, udalaren alor bakoitzerako, programak eta azpi-programak ezartzen dira, zeinetan adierazten baitira aurreikusitako helburuak eta haiek lortzeko beharrezkoak diren baliabideak.

Beraz, aurrekontu-programa bat osatuta dago ezarritako helburuak lortze aldera programa hori betetzearen ardura daukan kudeatzaileari eskueran ipintzen zaizkion kredituen multzoarekin.

Oro har, udal aurrekontuan helburuak ez daude kuantifikatuta; horren ordez, definitzen dira aurreikusitako jarduera gisa, eta ez zaie erantzen haien lorpen-maila neurtzeko adierazlerik.

Bestalde, 2006an udalak zerbitzu-gutunak onetsi zituen. Horietan deskribatzen dira udal alorrean emandako zerbitzuak, kalitate-konpromisoak eta haien neurketarako adierazleak.

Udal zerbitzuak direla-eta hartutako konpromisoen betetzea neurtzeko ezarritako adierazleak ez dira kalkulatu.

Udal zerbitzuen kostua:

1996an, Nafarroako Unibertsitate Publikoak udal zerbitzuen kostuei buruzko azterlan bat egin zuen, kostu osoaren sisteman oinarriturik. Sistema horren arabera, zerbitzuaren kostua kalkulatzeko, programa instituzionalen gastuak banatzen ziren medialetara eta finalistetara, eta ondoren, medialekin finalistetara.

2000. urtean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak beste kostu-azterlan bat egin zuen, ABC sisteman oinarriturik. Metodo horren arabera, zerbitzu bateko jarduera guztiei esleitzen zaizkie langileak eta baliabideak, bai eta jarduera horiek aurrera eramateko erabilitako denbora ere, eta kostuak

lortzen dira batuketa bat eginik; hots, programa baten kostu zuzenen eta laguntza instituzionaleko alorren nahiz programaren beraren zeharkako kostuen ehuneko jakin bat.

2003an, Iruñeko Udala Espainiako Udalerrri eta Probintzien Federazioak (EUPF), unibertsitateek eta udalek sustaturiko proiektu batekin bat egin zuen. Proiektu horren helburua udal-zerbitzuen kostuen kalkulurako metodologia bat ezartzea zen. Hasiera batean kirol-zerbitzuei, zabor-bilketari eta gizarte-zerbitzuei aplikatu zitzaien.

Metodologia oinarritzen da prozesu bakoitzaren kostuetan. Prozesutzat hartzen da zerbitzu bateko jardueren bilketa homogeneousoa, eta kontsumoaren araberrako neurri baten bitartez kuantifikatzen da. Metodo honek ABC filosofiari jarraitzen dio, baina kostuaren kalkulua sinpleagoa da.

Gaur egun indarrean dagoen proiektu honetan adierazle normalizatu eta homogeneousoak ezarri dira, zerbitzuetako kudeatzaileekin adosturikoak. Adierazle horiek neurtzen dituzte jarduera, kostua eta aurrekontuak, ukituriko udaletako honako zerbitzu hauetarako: kultura, kirolak, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, udaltzaingoa, hirigintza-lizentziak eta hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena.

Nahiz eta Iruñeko Udalak proiektu horretan parte hartzen duen, 2007an 10.936 euroko ekarpena eginez, ez du bertako metodologia jarraitzen zerbitzuen kostua kalkulatzeko.

Udalak zerbitzu baten urte osoko kostua kalkulatu du urteko KPIa 2000. urteko kostu zuzenei aplikatuz, ibilgetuaren amortizazioa barne, kontuan hartu gabe zenbat baliabide eta denbora inbertitu den, urte zehatz bakoitzean, zerbitzu baten jardueretan; eginkizun oso neketsua, bidenabar esanda. Zeharkako kostuak egozten dira 2000. urtean kalkulaturiko ehunekoan; hori dela-eta, kostuak esleitzen dira bai neurritz gora bai neurritz behera ere, ez direlako kontuan hartzen ez indarreko udal-egitura, ez banaketa-area bakoitzari dagozkion zenbatekoak ere.

Beraz, kostua kalkulatzeko modu horrekin ez dago korrelaziorik zerbitzuaren kostu kalkulatuaren eta egiazko edo aurreikusgarriaren artean.

Bestalde, urteko tasak eta prezio publikoak finkatzen dira 1996an ezarritako kostu-sistema osoaren araberrako kostuetan oinarriturik kalkulaturiko tarifa batzuk eguneratuz; horrenbestez, ez dago baliokidetzarik zerbitzuaren egiazko edo aurreikusitako kostuaren eta hura finantzatzeko aldera urtero ezarritako tasa eta prezio publikoen artean.

Adierazleak:

Kirolen eta Musika Eskolaren aurrekontu-programen betetze-maila ebaluatze aldera, Ganbera

honek adierazle-sorta bat proposatu eta udalera bidali zuen, aipaturiko zerbitzuetako kudeatzaileekin haiek berrikusi eta eztabaidatzeko asmoz. Kirol-zerbitzutik ez zen inolako erantzunik jaso.

Azaldutako mugapenak gogoan harturik, hots, helburu zehatz eta kuantifikaturik eza eta adierazleak kalkulatzeko daturik eza, ezin izan dugu ebaluatu helburuen lorpen efizientea, ez eta emandako zerbitzuen kalitatea ere, eta soilik ondorioztapen mugatuak agertzen ditugu, eginiko jarduerari eta aurrekontu-eraginkortasunari buruzkoak, nagusiki.

VII.2 KIROL-ZERBITZUA

Kirol-zerbitzuaren eginkizuna da herritar guztiek kirola egin ahal izan dezaten erraztea eta ariketa fisiko-kirolezkoaren ohitura sustatzea.

Antolaketa-egitura: Kirol Zerbitzua, 2007 arte, Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Alorraren barneko atal gisa egituratua egon da, eta urte horretatik aurrera, eginiko berrantolaketaekin, Gizarte Ongizate eta Kirol Alorreko atal gisa.

Kirol-zerbitzuko bi aurrekontu-azpiprogramak eta beren helburuak honako hauek dira:

- 45210 azpiprograma, "udalaren kirol-instalazioak": helburuak dira kiroldegien erabilera, funtzionamendua, kontserbazioa, garbiketa eta hobekuntza kudeatzea, haiek herritarrei eskuragarri ipintzea eta instalazioak handitzea.

- 45220 azpiprograma, "programak, hitzarmenak eta kirol-dirulaguntzak": xede gisa ditu herritarren artean kirol-ariketa sustatzea eta haiei eskuragarri ipintzea, aisialdirako alternatibak eskaintzea, egoera fisikoa mantentzeko eta kirola egiten hasteko aukera ematea, eta klub eta kirol-elkarteen jarduerari bultzada ematea.

Aurrekontu-azpiprograma hauen helburuak neurtzeko adierazlerik ez da ezartzen. Helburu horiek orokorrak dira, ez daude kuantifikatuta, eta gehiago dagozkie egin beharreko jarduerari, lortu beharreko emaitzei baino.

Kirol-zerbitzuen gutunak, zerbitzuak eskainitako prestazio bakoitzerako, hartutako konpromisoak eta haiek neurtzeko adierazleak ezartzen ditu. Ez dira kalkulatu adierazleen emaitzak; horrenbestez, ezezaguna da konpromisoen lortze-maila; eta, bestetik, konpromisoak ez betetzearen ondoriozko hobekuntza-ekintzarik ere ez da ezarri. Kirol-zerbitzuaren oroitidazkian ez da zerbitzu-gutuneko adierazleen inolako aipamenik egiten; horietako batzuk, dena den, oroitidazki horretako datuetatik lor daitezke.

2005etik 2007ra bitartean kirol-zerbitzuari atxikitako langileak honakoak ziren:

LANPOSTUA	2005	2006	2007
INEFeko lizentziaduna	1	1	1
Administrari ofiziala	1	1	1
Zerbitziburua	2	2	1
Eremuko arduraduna	1	1	1
Instalazioen funtzionamendurako laguntzailea	24	26	23
GUZTIRA	29	31	27

Baliabide materialak: udalak kirol-instalazioak ditu, hala nola udal-kiroldegiak, Arantzadiko Kirolgunea, Labrit frontoia eta futbol-zelaiak. 2007an bukatu zen eraikitzen Sanduzelaiko Kirol Hiria.

Udalak zuzenean kudeatzen ditu kirol-instalazio guztiak, honako hauek izan ezik: Labrit frontoia, Nafarroako Euskal Pilota Federakuntzak kudeatua, eta Arantzadiko Kirolgunea, Sanduzelaiko Kirol Hiria eta Mendillorriko Trinkete Kiroldegia, zerbitzu-enpresek kudeatuak.

Kirol Zerbitzuak honako prestazio hauek eskaintzen ditu:

- Erabilera arautuko kirol-instalazioak (kiroldegiak, Arantzadiko Kirolgunea, Labrit frontoia eta futbol-zelaiak).

- Aire zabaleko erabilerako kirol-instalazioak (frontoiak, irristaketa-zirkuituak, skate-pista, kirol anitzetako pistak eta abar), zeinen erabilerak ez baitu erabiltzailea inolako tarifarik ordaintzera behartzen.

- Haurren, gaztetxoan, helduen eta ezgaituen sektorerako kirol-programak.

- Dirulaguntzak eta laguntzak.

- Bestelako ekintzak, hala nola Iruñeko Milia, Marketing eta Kirol Babesletzaren Kongresua, kirol-elkarte pribatuek zoru publikoa erabiltzea, eta abar.

Kirol-zerbitzuko bi aurrekontu-azpiprogramen aurrekontu-betetzea honakoa izan da 2005ryik 2007ra bitartean:

KIROL INSTALAZIOAK	2005	2006	2007
Langile-gastuak	842.215	828.284	810.979
Ondasun aruntak eta zerbitzuak erostea	1.906.300	2.039.930	2.289.598
Inbertsioak	1.980.641	1.671.022	6.102.177
Kapital-transferentziak	110.310	66.095	1.444.769
GASTUAK, GUZTIRA	4.839.466	4.605.331	10.647.523
Salneurri publikoak	710.563	912.699	848.422
Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren dirulaguntza	0	371.605	0
DIRUSARRERAK, GUZTIRA	710.563	1.284.273	848.422

PROGRAMAK, HITZARMENAK ETA DIRULAGUNTZAK	2005	2006	2007
Ondasun aruntak eta zerbitzuak erostea	403.294	411.545	330.393
Transferentzia aruntak	1.589.184	1.594.543	1.748.178
Kapital-transferentziak	469.031	496.439	440.210
GUZTIRA	2.461.509	2.502.527	2.518.781

Kirol-zerbitzuari buruzko adierazleak, 2005etik
2007ra bitartean, honakoak izan dira:

- Kirol-zerbitzuaren jarduerari buruzko adierazleak

ADIERAZLEA	2005	2006	2007
Zentroen edo kirol-instalazioen kopurua	34	34	35
<i>ANTOLATURIKO JARDUERAK:</i>			
Haur erabiltzaileen kopurua	11.233	11.181	11.357
Gaztetxo erabiltzaileen kopurua	3.228	2.747	3.612
Erabiltzaile helduen kopurua	4.253	4.086	3.751
<i>EGOKITURIKO KIROLAK</i>			
Erabiltzaileen kop.	200	220	240
<i>ARANTZADIKO KIROLGUNEA</i>			
Erabiltzaileen kopurua, guztira	72.063	58.015	49.751

Antolaturiko jarduera-mota bakoitzeko erabiltzaile kopuruaren xehetasuna eranskinean erakusten da.

- Adierazle ekonomikoak

KIROL INSTALAZIOAK	2005	2006	2007
Biztanleko gastu arrunta	30,21	37,62	45,12
Biztanleko gastu arrunta	14,04	14,72	15,60
Gastu arruntaren %a, alorreko guztizko gastuaren gain	%11,27	%10,62	%9,33
Gastu arruntaren %a, guztizko gastuaren gain	%1,43	%1,25	%1,14
Gastu korrontearen estaldura (%), prezio publikoen bidez	%25,85	%31,82	%27,36
Gastu korrontearen estaldura (%), transferentzien bidez	0	%12,96	
Erabiltzaile bakoitzeko kapital-gastua	22,98	22,78	109,84
Biztanle bakoitzeko kapital-gastua	10,68	8,91	37,98
Kapital-gastuaren %a, alorreko guztizko gastuaren gain	%8,57	%6,43	%22,72
Kapital-gastuaren %a, guztizko gastuaren gain	%1,09	%0,76	%2,78
<i>PROGRAMAK, HITZARMENAK ETA DIRULAGUNTZAK</i>			
Biztanleko gastu arrunta	10,18	10,29	10,46
Gastu arruntaren %a, alorreko guztizko gastuaren gain	%8,17	%7,43	%6,26
Gastu arruntaren %a, guztizko gastuaren gain	%1,03	%0,88	%0,76
Biztanle bakoitzeko kapital-gastua	%2,4	%2,55	%2,22
Kapital-gastuaren %a, alorreko guztizko gastuaren gain	%1,92	%1,84	%1,33
Kapital-gastuaren %a, guztizko gastuaren gain	%0,24	%0,22	%0,16

- **Eraginkortasun-adierazleak:**

UDALEKO KIROL INSTALAZIOAK	2005	2006	2007
AURREKONTU ERAGINKORTASUNA			
Gastu errealak/gastu aurrekusiak	%107	%65	%84
Dirusarrera errealak/dirusarrera aurrekusiak	%72	%94	%67
ERAGINKORTASUN OROKORRA			
Egiazko erabiltzaileen kopurua/Biztanleen kopurua	%46	%39	%35

PROGRAMAK, HITZARMENAK ETA DIRULAGUNTZAK	2005	2006	2007
AURREKONTU ERAGINKORTASUNA			
Gastuetan: gastu errealak/gastu aurrekusiak	%101	%92	%91
ERAGINKORTASUN OROKORRA			
Egiazko erabiltzaileen kopurua/Biztanleen kopurua	%46	%39	%35

- **Efizientzia-adierazleak:**

UDALEKO KIROL INSTALAZIOAK	2005	2006	2007
LANGILERIAREN EGIAZKO EFIZIENTZIA	3.033	2.542	2.545
Egiazko erabiltzaileen kopurua/Enplegatuen kopurua			
LANGILERIAREN EFIZIENTZIA EKONOMIKOA	0,11	0,09	0,08
Egiazko erabiltzaileen kopurua/langileria-gastuak			

Kirol-instalazioak:

2007an, programa honetako gastuek ehuneko 84ko exekuzioa izan dute, hots, 2006an baino 19 puntu gehiagokoa; dirusarrerek, ordea, ehuneko 67koa, aurreko urteetako exekuzioa baino portzentaje apalagoa.

Programa honetako gastu arruntak alorreko guztizko gastuaren ehuneko 9 egiten du, eta udalaren guztizko gastuen ehuneko 1,14. Portzentaje horiek antzekoak izan ziren 2005ean eta 2006an. Gastu arrunten ehuneko 27,36 finantzatzen da prezio publikoekin; horren aldean, 2006ko portzentajea ehuneko 31,82koa izan zen, eta, gainera, 371.605 euroko dirulaguntza jaso zen.

2007an, erabiltzaile bakoitzeko gastu arrunta 45 eurokoa zen, eta biztanle bakoitzekoa, 15,6 eurokoa. Kopuru horiek handiagoak dira 2005 eta 2006koak baino.

Gorakada horren arrazoi nagusia da erabiltzaileen guztizko kopuruak 2007an izandako beherakada nabarmena, aurreko urteekin alderatuta. Beherakada hori batik bat Arantzadiko Kirolgunean izan da. Neurri txikiagoan, zerikusia izan du,

halaber, antolaturiko jardueretan pertsona heldu gutxiagok parte hartu izanak. Kirol-instalazioen erabiltzaile kopuruak, 2007an, biztanle guztien ehuneko 35 egiten zuen; 2005ean, ordea, ehuneko 46.

Kirol-instalazioen programari dagozkion kapital-gastuek Gizarte Ongizate eta Kirol alorreko gastu guztien ehuneko 23 egiten dute, eta 2007ko gastu guztien ehuneko 3. Ehuneko horiek askoz ere handiagoak dira 2005 eta 2006koak baino. Horren arrazoia dira, batez ere, Sanduzelaiko Kirol Hiriren obrak, bai eta Pamplona Centro Histórico SA udal-enpresari eginiko ekarpena ere, San Agustin kirol-instalazioak finantzatzeko eginikoa. Horrenbestez, 2007an, erabiltzaile bakoitzeko kapital-gastua 110 eurokoa izan zen, 2005 eta 2006an 23koa izan bazen ere. Biztanle bakoitzeko, ordea, 38 eurokoa izan zen 2007an, eta 2006 eta 2005ean, 9koa eta 11koa, hurrenez hurren.

Programak, hitzarmenak eta dirulaguntzak:

Aurrekontu-programa honetako gastuak, 2007an, ehuneko 91n bete dira. Ehuneko hori 2006koaren antzekoa da.

Bertako gastu arruntek alorreko gastu guztien ehuneko 6 egiten dute; 2006an ehuneko 7, eta kapital-gastuak ehuneko 1ekoak ziren 2007an eta aurreko urteetan.

VII.3 MUSIKA ESKOLA

Joaquín Maya musika eskola da udalaren titulartasuneko musika-ikastetxe ez-arautu bat, helburu gisa musika-jakintzaren sustapena duena, musika-tresnak jotzen irakatsiz, musika-tresnekiko jardunaren osagarria den musika-irakaspenaren bidez, ikasketa profesionalek bideratuz eta musika-entzutearekiko interesa piztuz.

Zuzenean udaletik kudeatzen da, Hezkuntza, Gazteria eta Kirol alorretik; alor horrek, 2007ko ekainetik aurrera, "Hezkuntza eta Gazteria Alorra" izena hartu zuen.

Aurrekontuan honako helburu hauek daude ezarrita: musika-prestakuntzarako eskaerari erantzutea, eskolako ikastetxe-plana garatzea, harpi-

dedunak berritzea eta argitalpenak erostea, musika-tresnak eta soinu-ekipoak erostea, ikastaro monografikoak eta eskolaz kanpoko ekintzak aurrera eramatea.

Helburu horiek ez daude kuantifikatuta, eta haien neurketarako adierazlerik ez zaie erantsi.

2008an helburuak ezarri dira, erdietsi beharreko emaitza gisa, eta haiek neurtzeko adierazleekin batera; horrenbestez, haiek kalkulatzeko modua emanen du zerbitzuaren kudeaketa ebaluatzeko. Alabaina, adierazle horiek ez dira 2008ko aurrekontuan jaso.

Musika eskolako zerbitzu-gutunari dagokionez, ez dira kalkulatu harturiko konpromisoen neurketarako ezarritako adierazleak; halaber, adierazle horiek ez dira jasotzen Hezkuntza eta Gazteria alorraren oroitidazkian.

Musika Eskolan emandako zerbitzuak eta aurrera eramandako jarduerak honako hauek dira:

Zerbitzuak	JARDUERAK
Informazioa, aholkularitza eta sentsibilizazioa	Ikastaroei eta jardueri buruzko zerbitzua, bai presentziala eta bai telefono bidezkoa.
Ikastaroak antolatzea	Ikastaro arruntak. -Lehen ziklokoak: oinarritzko musika-prestakuntza, musika-tresna, musika-hizkuntza eta abesbatza edo talde instrumentala -Bigarren ziklokoak: hobekuntza instrumentala eta taldekoa. Musika-tresna eta talde instrumentala Ikastaro irekiak: -Entzunaldi gidatuak -Musikaren historia: - Antzinako musika
Jarduera osagarriak antolatzea	Kontzertuak: -pedagogikoak -ikasle bakarlariak eta ganbera-musikakoak -Abesbatzak eta talde instrumentalak -Interpretatzaile gazteen lehiaketa

Hona programari atxikitako langileak:

LANPOSTUA	2005	2006	2007
Musika-irakasleak	22	34	34
Administrari ofiziala	2	2	2
GUZTIRA	24	36	36

Programaren betetzea honakoa izan da:

MUSIKA ESKOLA	2005	2006	2007
Langile-gastuak	1.521.142	1.526.856	1.548.458
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	101.364	105.734	125.321
Transferentzia arruntak	3.300	2.199	1.450
Inbertsioak	22.006	134.251	665.520
GASTUAK, GUZTIRA	1.647.812	1.769.040	2.340.749
Salneurri publikoak	124.803	122.556	129.203
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	172.204	165.928	214.418
DIRUSARRERAK, GUZTIRA	297.007	288.484	343.621

Eraginkortasun-adierazleak:

	2005	2006	2007
AURREKONTU ERAGINKORTASUNA			
Gastu errealak/gastu aurreikusiak	%58	%71	%72
Dirusarrera errealak/dirusarrera aurreikusiak-prezioak	%124	%96	%97

• Adierazle ekonomikoak:

MUSIKA ESKOLA	2005	2006	2007
Ikastaro arruntetako ikasle bakoitzeko gastu arrunta	2.040	2.018	1.987
Biztanleko gastu arrunta	8,3	8,39	8,43
Gastu arruntaren %a, alorreko guztizko gastuaren gain	%6,66	%6,05	%5,04
Gastu arruntaren %a, guztizko gastuaren gain	%0,84	%0,71	%0,62
Gastu korrontearen estaldura (%), prezio publikoen bidez	%7,68	%7,50	%7,71
Gastu korrontearen estaldura (%), transferentzien bidez	10,59	%10,15	%12,80
Ikastaro arruntetako ikasle bakoitzeko kapital-gastua	28	166	789
Biztanle bakoitzeko kapital-gastua	0,11	0,69	3,35
Kapital-gastuaren %a, alorreko guztizko gastuaren gain	%0,09	%0,5	%2
Kapital-gastuaren %a, guztizko gastuaren gain	%0,01	%0,06	%0,24

• Jarduera-adierazleak:

ADIERAZLEA	2005	2006	2007
Ikastaro arruntetako matrikulazio kopurua	797	810	843
Matrikulaturiko ikasle berrien kopurua	137	160	Daturik ez
Eskaintako ikastaro irekien kopurua	3	3	Daturik ez
Ikastaro irekietako matrikulazio kopurua	79	53	Daturik ez
Entzunaldi gidatuak	52	38	Daturik ez
Musikaren historia	27	15	Daturik ez
Musika Eskolaren erabiltzaileak/biztanleria	0,45%	0,44%	Daturik ez

Aurreko taulan adierazitako jarduera-adierazle-
ei loturiko 2007ko daturik ez da agertzen alorreko
orotidazkian. Ezta ere Musika Eskolak egindako
beste jarduera batzuei buruzkorik, hala nola kon-
zertuak.

Musika Eskolako gastu eta dirusarreraren bete-
tzeak 2007ko aurrekontuaren ehuneko 72 eta 97
bitarteko zenbatekoa egiten du. Betetze hori ia
2006. urteko berbera da; 2005ean, ostera, gastuek
ehuneko 58ko betetzea izan zuten, eta dirusarre-
rek, aurrekontuaren ehuneko 124koa.

Musika Eskolaren gastu arruntek alorraren
gastu guztien ehuneko 5 egiten dute; 2005ean eta
2006an, puntu bat gehiago, eta 2005ean 2.040
eurokoak izatetik 2007an 1.987koak izatera pasa
dira, matrikulazio kopuruaren gorakadaren ondori-
oz. Azterturiko hiru urteetan, biztanle bakoitzeko
gastu arrunta 8 eurokoa izan da.

Azterturiko hiru urteetan, gastu horren ehuneko
8 prezio publikoekin finantzatzen da, eta ehuneko
13, Nafarroako Gobernuaren transferentziekin
(2006an ehuneko 10, eta 2005ean ehuneko 11).

Musika eskolako inbertsioek 665.520 euro egin
dute 2007an, eta Chinchilla jeneralaren kalean
dagoen eraikina musika-eskola bihurtzeko obreta-
rako izan dira. 2006ko inbertsioei dagokienez,
ehuneko 396 gehiagokoak izan ziren; 2005ean,
ordea, inbertsioen zenbatekoa 22.000 eurokoa
izan zen.

Ikastaro arruntetan 843 matrikulazio izan dira
2007an; beraz, aurreko bi urteekin alderatuta,
gorakada apal bat izan da. Beste jarduera osagarri
batzuei dagokienez, hala nola ikastaro irekiak,
entzunaldi gidatuak eta musikaren historia,
2006an matrikulazioek behera egin dute,
2005ekoekin alderatuta (ez daukagu 2007ko datu-
rik).

*Udalaren zerbitzuei gagozkiela, hona gure
gomendioak:*

- *Aurrekontu-programa ezberdinetarako, hel-
buru zehatz, kuantifikatuak eta bideragarriak ezar-
tzea –kasuan kasuko zerbitzuko kudeatzailearen
parte-hartzearekin zehaztuak–, bai eta aurrekusi-
tako helburuen betetze-maila neurtzeko adierazle-
ak ere.*

- *Zerbitzu-gutunez denaz bezainbatean, hartu-
tako konpromisoen jarraipena egiteko aurreikusiak
diren ekintzak aurrera eramatea; besteak beste,
kalitatea neurtzeko ezarritako adierazleak kalkula-
tzea, eta harturiko kalitate-konpromisoak betetzeko
beharrezkoak diren hobekuntza-ekintzak zehaz-
tea.*

- *Udalaren gerentziatik bultzada eman behar
zaio zerbitzu-kudeaketa ebaluatzeko adierazleak
ezartzeari eta haiek denboran zehar modu jarrai-
tuan kalkulatzeari. Emaitzak neurtuz, posible izan-
en da zerbitzu-ematean izandako hobekuntzak
identifikatzea, aurrekontu-baliabideen esleipena
eta erabilera optimizatzea, eta kudeaketa publiko-
ak gardentasun handiagoa erdiestea.*

- *Zerbitzuen kostua kalkulatu behar da kasuan
kasuko urtean zerbitzuak izandako kostu errealak
edo aurrekusiak aintzat harturik, eta ez, ordea,
aurreko urteetan eginiko azterlanetan oinarriturik;
horrez gain, tasak eta prezio publikoak ezarri
behar dira kostu horietan oinarrituta, eta kontuan
hartuz zerbitzuan eskainitako prestazio ezberdi-
nak. Horri buruz, eta udalak Espainiako Udalerrri
eta Probintzien Federazioaren proiektuan parte
hartzeko duenez, proiektu horretan ezarritako meto-
dologia eta informazioa aintzat hartu ahalko lituz-
ke.*

- *Datuak modu jarraituan eta aldizkakoan
eskuratzeko ahalbidetuko duen informazio-sistema
bat taxutu behar da, zerbitzuen kostuak eta adie-
razleak kalkulatzeko oinarri gisa erabili ahal izan-
en dena.*

- *Kontrol finantzarioa egin behar da, zera egi-
aztatzeko, bai aurreikusitako helburuen lorpenean
iritsitako efizientzia-maila, bai eraginkortasun-kon-
trolla ere, zeina baitatza helburuen lorpen-mailan
eta zerbitzuen funtzionamendu-kostuaren eta
errendimenduaren analisisan.*

VIII. UDALAREN MENPEKO ERAKUNDEAK

Udalaren menpeko erakundeen alderdi hauek
azpimarratzen ditugu, kanpo-auditoreek eginiko
auditoria-txostenak oinarri gisa harturik:

VIII.1 ERAKUNDE AUTONOMOAK

Hirigintza Gerentzia

Kanpoko profesionalek eginiko auditoria finan-
tzarioan oniritzia adierazten da, bai Hirigintza
Gerentziak bai haur eskolek 2007ko ekitaldian
izandako urteko kontuei buruz.

Legezketasunaren ikuspegitik egindako fiskali-
zazioari dagokionez, haur eskolek, kanpoko profes-
ionalen aburuz, oro har bete egin dute aurrekon-
tuei, langileei eta kontratazioari aplikatzekoa zaien
legedia.

Hirigintza Gerentziaren auditoria-txostenak ez
du jasotzen legeen betetzeari buruzko iritzirik.

Horri buruz, gomendio-gutunean adierazten da
ezen, kontratazioari eta langileei buruzko legezko-

tasun-kontrolari dagokionez, eta kontu-auditoria bati dagokion langintza-esparrua aintzat hartuz (bere helburu nagusia ez da legezkontasun-kontrola), ez dela oso gauza aipagarri detektatu, Gerentziarentzat muntadun izan litekeenik.

Hirigintza Gerentziaren auditoria-txostenean honako bi enfasi-lerrokada hauek agertzen dira:

- Hirigintza-jarduketa bati atxikitako poligono bateko zenbait lurzati Nafarroako Gobernuari eta Vinsari besterentzearen ondorioz, lurzati horien gainkostuak, zeinak behin-behineko likidazioan (udalaren Osoko Bilkuraren erabaki baten bidez behin betiko bihurturikoan) aintzat hartutako kontuen gainetik sor baititezke eta urbanizazio-kuoten bitartez estali gabe egon, Iruñeko Udalaren kargu-ria igorri beharko dira.

- Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak emandako epai bat dela medio, lurzati-berrantolamenduko proiektu bati atxikitako obra eginak direla-eta fakturatutako urbanizazio-gastuak murriztea ezartzen da zigor gisa. Itzultzeke daude, bidegabeki jasotako dirusarrera gisa, 1.283.313,86 euro. Itzulketa horiek gauzatuko dira Iruñeko Udalak eginiko transferentzien bitartez.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza Gerentziari buruzko legezkontasun-auditoria egitea.*

- *Kontuan izatea Hirigintza Gerentziaren jardueretatik hel litezkeen gorabeherak udalaren kontuetan izan dezaketen eragina. Haietako bat ez dago balioetsia, eta bestearen zenbatekoa 1.283.313 eurokoa da.*

- *Hirigintza Gerentziako hirigintza-poligonoetako kontuak itxi eta likidatzea.*

VIII.2 UDALAREN ENPRESA PUBLIKOAK

Kanpoko profesionalek eginiko auditoria finantzarioan oniritzia adierazten da, Pamplona Centro Histórico S.A., Comiruña S.A., Mercairuña S.A. eta Animsa S.A. enpresek 2007ko ekitaldian izandako urteko kontuei buruz.

Kanpoko profesionalek kontratazioari dagokionez Comiruña S.A., Mercairuña S.A. eta Animsa S.A. enpresei buruz eginiko auditorian, eta kontratazioari, aurrekontuei eta langileei dagokienez Pamplona Centro Histórico S.A. enpresari buruz eginikoan, kasu guztietan oniritzia adierazten da.

VIII.3 FUNDAZIOAK

Nahiz eta, aplikatzekoa den araudiari jarraituz, fundazioen egoera-orri finantzarioak ez diren toki

entitatearen kontu orokorraren osagai, udalak kontuen espedienteetan sartu ditu, Osoko Bilkurak onets ditzan.

Fundazioen 2007. urteko kontuak kanpoko profesionalek auditatuak izan dira. Ez da inon agertzen legezkontasun-auditoriarik egin izana; bakar-bakarrik, finantza-auditoria.

Kanpoko profesionalek Gayarre Antzokiaren udal-fundazioaren 2007ko kontuei buruz eginiko finantza-auditorian oniritzia adierazten da.

Erruki etxea fundazioaz denaz bezainbatean, 2007ko ekitaldiko urteko kontuen finantza-auditoriak iritzi bat agertzen du, nahiz eta, fundazioak sozietateen gaineko zergaren aitortpena aurkezteko betebeharrak izatearen ondoriozko ziurgabetasuna dela-eta, iritzi horretan salbuespenak ere badauden.

Hona gure gomendioak:

- *Fundazioei buruzko legezkontasun-auditoria egitea.*

IX. 2006ko FISKALIZAZIOAN EGINIKO GOMENDIOEN BETETZEARI BURUZKO ANALISIA.

Atal honetan aztertzen da 2006ko fiskalizazioan adierazitako gomendio garrantzitsuenen beteetze-maila. Ez ditugu hemen sartu betetzea egiaztatzeko modurik izan ez duguneko gomendioak.

AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

- *Aurrekontu orokorreko eta kontu orokorreko espedienteetan sartzea kontabilitate-araudiak ezarritako dokumentu guztiak.*

Nahiz eta aurrekontu orokorrean eta kontu orokorrean jasota dauden kontabilitate-instrukzioan ezarritako kontabilitateko egoera-orri nagusiak, kasuko espedienteak ez daude osorik, eta egoera-orri batzuk ez dira aurkezten instrukzio horretan ezarritako egiturari jarraituz.

2007an osotu da aurrekontuari atxikitako langileria-eranskina.

Udalak hobetu egin du kontabilitate-oroitidazkiaren aurkezpena, kontu orokor bateratua behar bezala ulertzeko behar adinako informazioa gehituz.

- *Kontu orokorra osatzen duten kontabilitateko egoera-orri ezberdinetako datuak elkarrekin erkatzea.*

Oro har, ez da deskoadratzerik agertzen kontabilitateko egoera-orri ezberdinen artean, salbu eta

diruzaintzako egoera-orriaren eta aurrekontuz kanpoko kontzeptu batzuen kasuan.

- *Kontabilitateko aplikazio informatikoa egokitu egin behar da kontabilitate-legedian ezarritako betekizunetara.*

2008an aplikazio informatiko berri bat garatze-ari ekin zitzaion.

- *Jardunbideak ezartzea, berrmatuko dutenak udal alorrek kudeatutako zerbitzuetatik eratorritako eragiketa eta egitate ekonomiko-finantzario guztiak diruzaintza eta kontabilitate departamentuei komunikatuko zaizkiela.*

Eragiketa zehatz batzuen kasuan, alorren eta aipaturiko departamentuen artean deskoordinazioa izan dela ikusi dugu.

- *Aurrekontu-programa ezberdinetarako helburu zehatz eta kuantifikatuak ezartzea, bai eta helburuen betetze-maila neurtzeko adierazleak ere.*

Udal-zerbitzu batzuetarako, helburu zehatzak eta haiek neurtzeko adierazleak definitzen hasi dira, aurrekontuetan jaso ez diren arren.

UDAL ZERBITZUAK

- *Hartutako konpromisoen jarraipena egiteko, zerbitzu-gutunetan jasotako jarduketak egitea.*

Gomendio hau oraindik ez da bete.

BARNE-KONTROLA

- *Aurretzako fiskalizazioa egin zaien gastuen lagin baten ganean fiskalizazio osoa egitea, eta horretatik ateratako ondorioak Osoko Bilkurari jakinaraztea.*

- *Udalaren dirusarrerei dagokienez barne-kontrola ezarri eta aurrera eramatea.*

- *Erakunde autonomoen kontu-hartzailtza eginkizuna betetzea eta erakunde autonomo nahiz enpresa publikoetan eraginkortasunaren kontrola egitea.*

Gomendio horiek guztiak oraindik ez dira bete.

UDALAREN ANTOLAKETA

- *Erregelamendu organikoa egokitzea Toki Araubidearen Oinarririk arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak udal-gobernurako ezarritako egiturara.*

Nahiz eta udal-gobernuaren egitura lege horretara egokituta dagoen, egoera berri hori islatzeko 1998an onetsitako erregelamendu organikoa ez da aldatu.

Administrazio-antolaketa dagokionez, udalak erregelamendu berria onetsi zuen 2007an.

UDALAREN DIRUSARRERAK

- *Ordaintzeke dauden kuotak igortzea etxeko etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileei.*

2008an igorri zitzaizkien.

- *Maizago egitea MUGAko kobragailuen kobrantza, diru-bilketa eta diru-kontaketako eragiketak fiskalizatzeko eta kontrolatzeko jarduketak.*

Gomendio horrek bete gabe segitzen du, baina adierazi beharra dugu dirubilketa kontrolatzeko lanei ekin zitzaizela 2008an.

- *Lursailen besterentzearen ondoriozko dirusarrera-aurreikuspenak oinarritu behar dira aurreitazko txosten tekniko edo azterlanetan.*

2007ko aurrekontu orokorrari Toki Ogasuneko Alorreko zuzendariaren txosten bat gehitu zitzaion, lursail-besterentzearen ondorioz 2007rako aurreikusitako dirusarrerei buruzkoa.

- *Udal ondarearen erregistroa eratu behar da, eta ondasunen inbentario orokorrean adierazi eta zehaztu behar dira ondare horretakoak direnak, bai eta haiek hirigintza-arloko legedian ezarrita dauden helburuei lotuta egotea ere.*

Aipaturiko erregistroa ez da eratu. Zenbait lurzatiri dagokionez, ondasun-inbentario orokorrean adierazten da lurzorua udal-ondarekoak direla.

LANGILERIA ARLOKO GASTUAK

Egiaztatu dugu honako gomendio hauek hein ezberdinean bete direla:

- *Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostu hutsak, izendapen askekoak ez direnak, betetzea, administrazio publikoetan lanpostuak betetzeko erregelamenduak arautzen duenari jarraituz.*

Udalak merezimendu-lehiaketa bidez bete zitu- en zenbait lanpostu huts, administrazio publikoetan lanpostuak betetzeko erregelamenduak arautzen duenari jarraituz.

- *Aldi baterako kontratazioen bidez beteta dauden lanpostu huts erreserbatu gabeak aztertzea, lanpostu horiek urteroko lan-eskaintza publikoetan sartzeko eta lanpostu horiek nahiz bete gabeko lanpostu hutsak betetzeko deialdiak egiteko.*

Nahiz eta plantillako lanpostu hutsak betetzeko aldi baterako kontratuak multzo kopurutsua egiten duten –bertan sarturik daude hiru urte baino gehiagoko iraupeneko kontratazio ugari– eta bete

gabeko lanpostu huts asko ere badagoen, kontua da 2007an zehar deialdi anitz egin zirela 2004, 2006 eta 2007an eskainitako lanpostu hutsetarako.

- *Langileei buruzko espedienteetan sartzeari kasuan kasuko langilearen inguruabar pertsonal guztiak eta harekiko emandako administrazio egintzak.*

Langileei buruzko espedienteak osatuz joan dira, baina ez dituzte beti biltzen langilearekiko emandako administrazio-egintza guztiak, ez eta haren inguruabar pertsonal guztiak ere.

- *Hausnarketa egitea langileria-kudeaketarako programa informatikoan jasotako aplikazio informatikoak abiarazteak dauzkan abantailak eta aukerei buruz; adibidez, deialdietarako aplikazioak eta espedienteak kudeatzekoa.*

Udalak adierazi digu ezarri gabeko aplikazio informatikoak aztertu dituztela eta ondorioztatu dutela haiek ezartzea ez litzatekeela ez eraginkorra ez efizientea izanena.

Honako gomendio hauek oraindik ere ez dira bete:

- *Lanpostu-sorkuntza eta amortizazioa egitea plantilla organikoa aldatuz, lege ezarritako onen- eta publikitate-betekizunak betez.*

- *Udaleko giza baliabideak planifikatzea udal zerbitzuen langileria-beharrizanen arabera.*

- *Ekitaldiko aurrekontuari atxikitako langileria-eranskinean sartzeari bete beharreko lanpostu hutsen eta kontratazio berriei buruzko aurreikuspenak.*

- *Plantilla organikoan lanpostu guztiak zerrendatzea, plantilla gauzatzeko arau osagarrietan jasotakoak barne, behar bezala ordenaturik eta sailkatuz eta bakoitzak dituen osagarriak aipaturik.*

- *Udal montepioaren ardurakoak diren pensio-eredu indardunetatik eratorritako betebeharrak aktualak zenbatetsi eta haietarako zuzkidurak ipintzea.*

- *Administrazio-kontratazio daukatenei ordaintzea betetzen duten lanpostuari dagozkion ordaintze-konzeptuengatik.*

- *“Ogasun publikoa, PFEZen hartzekodun” eta “Funtzionarioen osasun laguntza” izeneko kontuetan aurreko urteetatik datozen saldoak, 140.977 eurokoa eta 56.529 eurokoa, hurrenez hurren, berrikusi eta, kasua bada, erregularizatzea.*

ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUEN GASTUAK ETA INBERTSIOAK

Ondokoak dira bete gabe dauden gomendioak:

- *Kontratuaren aldaketa izapidetzea espediente baten bitartez, araudiak aurreikusten dituen jarduketak guztiak bere barrenean hartuko dituen, eta, betiere, kasuko zerbitzuak edo obrak egin aurretik izapidetzea.*

Kontratu batzuei dagokienez bete egin da.

- *Animsa SA enpresak emandako zerbitzu informatikoei dagokienez, proiektu informatiko bakoitzerako bere exekuzioaren balioespen ekonomikoa egin behar da, eta exekuzio horren arabera fakturatu. Proiektu bakoitzaren helburuak neurtzeko berariazko adierazleak zehaztea eta proiektu informatikoen jarraipen banakatu egitea. Ekipamendu informatikoa erosi beharra eta aplikazio informatiko berriak garatu beharra justifikatu behar da.*

- *Kontratuaren zenbatekoaren arabera esleipen-prozedurari jarraitzea, kontratuaren xedea zati txikiagoetan deskonposatu gabe.*

- *Obren exekuzioaren jarraipena egitea, eta horrela bermatu obrak egiten direla administrazio-baldintzen orriak eta proiektuak ezarritakoari jarraituz eta, kasua bada, kontratistari lege zehazturiko zehapenak ezartzea.*

- *Inbertsioen urteroko aurrekontu-egitaraua hobetu behar da, kontuan harturik inbertsio horien esleipen eta exekuziorako aurreikusitako epeak.*

- *Baliabide atxikien bitartez finantzaturiko kreditu-gerakinak erantsi behar dira, non eta ez zaion uko egin gastu-exekuzioarekin jarraitzeari, eta kontabilitatearen bitartez haien jarraipena eta kontrola egin behar dira.*

- *Gastu-proiektuen kontabilitate-modulua egokitu behar zaio kontabilitate-instrukzioan ezarritako egiturari.*

- *Jasotako abalaren kontabilizatzea. Fidantza eta gordailu-kontuak erregularizatzea.*

EGINIKO TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Bete diren gomendioei dagokienez, zaharberri-tzearako dirulaguntzei buruzko ordenantza egokitu egin zuen udalak ordenantza horren sustapen-helburuetara.

Ondokoak dira bete gabe dauden gomendioak:

- *Dirulaguntzei buruzko plan estrategikoa prestatzea.*

- *Berrikusi behar dira diruz lagundutako jarduerari dagokionez dirulaguntzaren hartzaileak aurkezturiko gastu-ziurtagiriak.*

Oro har, fiskalizatu ditugun dirulaguntzetan berrikusi egiten dira dirulaguntzaren hartzaileak aurkezturiko gastu-frogagiriak, salbu eta txosten honetan adierazitako kasu zehatzetan.

- *Kontu-hartzailearen eskueran jarri behar da talde politikoentzako ordainsarien kontabilitatea, udalaren erregelamendu organikoak ezartzen duen bezala.*

ZORDUNAK

Ondokoak dira bete gabe dauden gomendioak:

- *Itxitako ekitaldietakoak izanik premiamendu bidezko dirubilketa-prozeduran sartuta ez dauden zorren jarraipena egitea eta haiek kobratzeko urratsak egitea.*

- *Halako prozedurak taxutzea non modua emanen baitute itxitako ekitaldietako zor guztiak kontabilitate-sistematik identifikatzeko.*

HARTZEKODUNAK

Ondokoak dira bete gabe dauden gomendioak:

- *Erregistraturikoak eta kontabilizatu gabeak diren gastuak aztertzea eta haiek izapidetzea beren egoerari dagokion moduan.*

- *Betebeharrak aitortu behar dira haiek sortzen joan ahala.*

- *Itxitako ekitaldietako saldo hartzekodunak aztertu eta erregularizatzea.*

ENTE HARTZEKODUNAK

Udalaren menpeko enteei dagokienez 2006an eginiko gomendioak, gaur egun indarrean diraute, honakoak dira:

- *Hirigintza Gerentziari eta fundazioei buruzko legezketasun-auditoria egitea.*

2007an Mercairuña SA enpresaren legezketasun-auditoria aurkeztu zen, zeina ez baitzen agertzen 2006an.

Hirigintza Gerentziari dagokionez:

- *Kontuan izatea Hirigintza Gerentziaren jardueretatik hel litezkeen gorabeherak udalaren kontuetan izan dezaketen eragina. Haietako bat ez dago balioetsia, eta bestearen zenbatekoa 1.283.313 eurokoa da.*

- *Hirigintza-poligonoetako kontuak itxi eta kitatzea.*

Amaierako ondorioztapen modura, eta udalaren kudeaketa ekonomikoa hobetze aldera, Compotos Ganberak lehentasunezkoztat jotzen du honako gomendio hauek aplikatzea:

- *Udalaren, erakunde autonomoen eta udal merkataritza-sozietateen kudeaketa ekonomikoa-
ren barne-kontrola egitea, kontu-hartzailearen, finantzen eta eraginkortasunaren hiru ikuspegieta-
tik, eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legean zehaz-
tutako hedadurarekin.*

- *Kontabilitate-programa informatiko bat ezar-
tzea, aurrekontuei eta finantzei buruzko informa-
zioa emanen duena lege-betebeharrei jarraikiz.*

- *Alorren jarduketak koordinatzea eta egiten
dituzten eragiketak jakinaraztea kontabilitate- eta
diruzaintza-departamentuei.*

- *Administrazio-kontratazioari dagokionez,
obrak egiteko epeak betetzen ote diren egiazta-
tzeko kontrola indartzea, kontratuaren xedea
zehaztasunez definitzea, eta proiektuak ikuska-
tzea, kontratu-aldaketak ahal den neurrian saihe-
teko.*

Inbertsioei buruzko urteroko aurrekontu-agerpena ere hobetu beharra dago, eta horretarako, kontuan hartu behar da aurreikusgarria dela inbertsio horiek ekitaldian zehar exekutatzeko.

- *Emandako dirulaguntzei dagokienez, kasu
guztietan egiaztatu behar da diruz lagundutako
jarduera egina daukala onuradunak, bai eta diru-
laguntzaren helburua bete duela ere. Horretarako,
aplikatzekoa den araudian ezarritako justifikazio-
moduak erabiliko dira.*

- *Animsa enpresak emandako zerbitzu infor-
matikoei dagokienez, barne kontrola indartu egin
behar da aplikazio informatiko berrien garapena-
ren fase guztietan, eta proiektu informatiko bakoi-
tzaren exekuzioaren jarraipena egin behar da.*

- *Udalaren dirusarrerez denaz bezainbatean,
haien gaineko arauak jarraikiz kitatu behar dira, eta
haien kobrantza exijitu behar da ezarritako epe
eta prozedurak errespetatuz, horrela zera bermat-
zeko, udal-eskubide guztiei dagokien dirubilketa
egiazki egiten dela.*

- *Zerbitzuen kudeaketa ebaluatzeko adierazle-
ak ezarri eta kalkulatzeko.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

ERANSKINA. KIROL ZERBITZUAREN JARDUERARI BURUZKO ADIERAZLEAK

ADIERAZLEA	KALKULUA	BALIOA		
		2005	2006	2007
Kirolgune kopurua, espezialitatearen arabera	Instalazio edo kirolgune kopurua	34	34	35
Parte hartzen duten ikasleen/erabiltzaileen kopurua	Antolaturiko jardueretan izandako erabiltzaileen kopurua, guztira	90977	76249	68711
I. HAURRAK	Antolaturiko jardueretan izandako erabiltzaile-haurren kopurua	11233	11181	11357
1.1. Ikasleen igeriketarako kanpaina	Ikasleen igeriketarako kanpainen izandako erabiltzaileen kopurua	2846	2694	2702
1.2. Udalaren Kirol Eskolak (Guztira):	Udalaren Kirol Eskoletako (U.K.E.) erabiltzaileen kopurua	8387	8487	8655
1.2.1. Xakea	U.K.E.etako xake-erabiltzaileen kopurua	396	408	391
1.2.2. Atletismoa	U.K.E.etako atletismo-erabiltzaileen kopurua	333	376	346
1.2.3. Saskibaloia	U.K.E.etako saskibaloierabiltzaileen kopurua	1548	1663	1627
1.2.4. Eskubaloia	U.K.E.etako eskubaloierabiltzaileen kopurua	475	475	528
1.2.5. Beisbola	U.K.E.etako beisbol-erabiltzaileen kopurua	124	130	104
1.2.6. Txirindularitza	U.K.E.etako txirindularitza-erabiltzaileen kopurua	19	15	13
1.2.7. Areto-futbola	U.K.E.etako areto-futboleko erabiltzaileen kopurua	3550	3675	3950
1.2.8. Gimnastika	U.K.E.etako gimnastika-erabiltzaileen kopurua	496	447	410
1.2.9. Waterpoloa	U.K.E.etako waterpolo-erabiltzaileen kopurua	206	186	124
1.2.10. Patinajea	U.K.E.etako patinaje-erabiltzaileen kopurua	251	177	182
1.2.11. Pilota	U.K.E.etako pilota-erabiltzaileen kopurua	869	867	910
1.2.12. Piraguismoa	U.K.E.etako piraguismo-erabiltzaileen kopurua	29	24	20
1.2.13. Errugbia	U.K.E.etako errugbi-erabiltzaileen kopurua	30	27	30
1.2.14. Tenisa	U.K.E.etako tenis-erabiltzaileen kopurua	45		
1.2.14. Mahai-tenisa	U.K.E.etako mahai-tenisaren erabiltzaileen kopurua	16	17	20
2. HAUR ETA GAZTEAK	Antolaturiko jardueretan izandako erabiltzaileen (haur eta gazteak) kopurua	3228	2747	3612
2.1. Jaitsialdiak Argan behera (guztira):	Argan antolaturiko jaitsialdietan izandako partaide kopurua	1161	669	1692
2.1.1. DBHko ikasleak	Jaitsialdietan izandako DBHko partaideen kopurua	517	230	
2.1.2. 18 urtetik 25 urtera bitarteko gazteak	Jaitsialdietan parte hartu duten 18 urtetik 25 urtera bitarteko gazteen kopurua	644	439	
2.2. Udalekuak	Udalekuetako partaideen kopurua	827	826	830
2.3. Elur-erraketekiko ibilaldiak	Elur-erraketekiko ibilaldietako partaideen kopurua	240	280	220
2.4. Udalen arteko kirolaren kanpaina	Udalen arteko kirolaren kanpainen izandako partaideen kopurua	1000	972	870
2.4.1. 8 urtetik 11ra bitartekoentzako areto-futbolaren liga	Udalen arteko areto-futbolaren ligan izandako 8 urtetik 11ra bitarteko partaideen kopurua	630	560	630
2.4.2. 8 urtetik 11ra bitartekoentzako saskibaloia	Udalen arteko saskibaloia ligan izandako 8 urtetik 11ra bitarteko partaideen kopurua	0	0	0
2.4.3. 18 urtetik 25era bitartekoentzako areto-futbolaren liga	Udalen arteko areto-futbolaren ligan izandako 18 urtetik 25era bitarteko partaideen kopurua	370	412	240
2.4.4. 18 urtetik 25era bitartekoentzako saskibaloia	Udalen arteko saskibaloia ligan izandako 18 urtetik 25era bitarteko partaideen kopurua	0	0	0
3. Heldua:	Antolaturiko jardueretan izandako erabiltzaile helduen kopurua	4253	4086	3751
3.3. Yoga eta erlaxazioa (60 urtetik gorakoak)	Yoga eta erlaxazioaren erabiltzaile-kopurua	510	628	629
3.4. Helduentzako igeriketa	Helduentzako igeriketako erabiltzaileen kopurua	1237	1220	1174
3.5. Fitnessa	Finesseko erabiltzaileen kopurua	56		30
4. EZGAITASUNA DUTEN BIZILAGUNAK	Egokituriko kirolen modalitateko erabiltzaileen kopurua	200	220	240
5. ARANTZADIKO KIROLGUNEA	Erabiltzaileen kopurua, guztira	72063	58015	49751
5.1. Egunbeteko sarrerak	Udan eta neguan saldutako egunbeteko sarreraren kopurua	62603	50646	43247
5.2. Udako abonamenduak	Udako abonamenduek egunbeteko sarreretan zenbatuta egiten duten kopuru baliokidea	8094	5462	3837
5.3. Neguko abonamenduak	Neguko abonamenduek egunbeteko sarreretan zenbatuta egiten duten kopuru baliokidea	1366	1907	2667
Deituriko dirulaguntzen kopurua	Deituriko dirulaguntzen kopurua	4	4	4

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI BURUZ IRUÑEKO UDALEKO ALKATEAK EGINDAKO ALEGAZIOAK

Comptos Ganberako idazkari nagusiak 2007. urteari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena igorri du, eta 10 egun naturaleko epea eman du alegazioak aurkezteko.

Udaleko alor guztiek dokumentuaren edukia aztertu ondoren, bidezko da alegazioak egitea, kontuan hartu behar baita behin-behineko txosten horrek zenbait baieztapen eta balioespen egiten dituela, errealtatearen arabera ez direnak edo, bestela, udalak jadanik onbideratu dituen goerak aipatzen dituztenak.

Behin-behineko txostenaren azalpen-hurrenkerari berari helduko diogu, salbu eta ondorioztapenei dagokienez ("txosten exekutiboa edo laburpena"), horiek bukaeran jasoko baititugu, aurretiaz garaturiko oinarrien ondorio modura.

1. - VI.1. atalari buruz. Aurrekontu orokorra eta kontu orokorra

Ganberak jotzen du ez dela zuzena kontabilitateko zenbait egoera-orriri buruz kontabilitate-programa informatikotik lorturiko informazioa (15. orrialdea).

Halaber, Ganberak badaki 2008an aplikazio informatiko berri baten garapenari ekin zitzaiola, gaur egun proba-fasean dagoena, eta asmoa da geroago behin betikoz ezartzea. Aplikazio hori garatzen ari dena Animsa enpresa da, Nafarroako Gobernuo Toki Administrazio Departamentuko teknikarien bai eta Iruñeko Udalekoak bertakoak diren teknikarien partaidetzarekin. Aplikazio berriak modua emanen du Comptos Ganberak aipaturiko dokumentazio guztia aurkezteko.

Azaldutakoagatik, honako hau eskatzen dugu: behin betiko txostenean zehatz daitezela behin-behinekoan esaten direnak, eta adieraz dadila ezen udalak aplikazio informatiko bat prestatu duela, proba-fasean dagoena, eta behin-behineko txostenean adierazten den informazio guztia eza-gutzeko modua ematen duena.

Diruzaintzaren, kontabilitatearen eta udal-alorren artean komunikazio-mekanismoak ezartzeaz eginiko gomendioari dagokionez, behin betiko txostenean adierazi beharko da ezen, Ganberak 2006. urteari buruzko gomendioen betetzea aztertean egiaztatu ahal izan duen bezala, desdoikuntzak "eragiketa zehatz batzuetan" bakarrik gertatu direla, eta horiek saihesteko neurriak jadanik hartu direla.

2.- VI.2. atalari buruz. Barneko kontrola.

Comptos Ganberak aldezen duen barne-kontrolaren indartzeari dagokionez, adierazi behar da kontu-hartzaile lanpostu berri bat txertatu dela 2009ko ekitaldirako aurrekontuak zirela-eta onetsitako plantilla organikoan.

Lanpostu berri honekin, kontu-hartzailertzan jadanik bost lanpostu daude (kontu-hartzailea gehi barne-kontrolako eginkizunak dauzkaten lau lanpostu); horrek, beraz, modua eman behar du Ganberak gomendatzen dituen kontrol-eginkizun guztiak osoki betetzen direla bermatzeko.

Horrenbestez, hala behin-behineko txostenaren atal honetan nola IX.ean (2006ko txosteneko gomendioen betetzeari buruzkoa), zehaztu behar da ezen udalak egokia den neurria hartu duela barne-kontrola ustatzeko, lanpostu-kopurua beste lanpostu batekin ugarituz eta udalaren kontu-hartzailertza jadanik goi-mailako bost tituludun horituz; alegia, tankera bereko beste hiri batzuetan baino gehiagoz.

3.- "VI.3.1. Tributuak" atalari buruz.

Comptos Ganberak esaten du ez dela inon agertzen Gobernuari eskatu zaionik Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren konpentsazioak ordaintzea, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeaz bestelako araudian ezarritako hobariei dagokienez (17. orrialdea).

Bada, eskaera horiek egin dira, egin ere.

Udalak Nafarroako Gobernuo departamentu ezberdinei egin dizkie eskaera guztiak, eta gaur egun berandutua dago Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen legearen ondoriozkoak diren hobarien kobrantza soilik (1. dok).

Horregatik, behin betiko txostenak adierazi beharko du, behin-behinekoak esaten duenaren kontra, konpentsazio horiek eskuratzeko eskaera guztiak egin direla.

Behin-behineko txostenak adierazten du, erai-kuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagokionez, ez dela prozedurarik existitzen, bermatzen duenik amaierako autolikidazio osagarria aurkeztuko denik zergapeturiko obrak amaitzean (17. orrialdea).

Alabaina, ulertu behar da ezen, autolikidazio bat izateagatik, zergadunaren betebeharra dela dokumentazio hori aurkezteak; horrenbestez, ez da administrazio-prozedurarik ezarri behar.

Bestelako kontua da autolikidazioak aurkeztu beharra egokiro betetzen ote den udalak ikuskatu

eta kontrolatzea, eta zerga-ikerketa eta ikuskapen unitatea da hori egiaztatzen duena, Ikuskapen Planean ezarritakoari jarraituz.

Behin betiko txostenak ohartarazi beharko du ezen –alde batera utzirik udalaren iritziz autolikidazioak berarekin dakarrela autolikidazioa exigitzeko administrazio-prozedurarik ez egotea– udalak berak egiaztatzen duela autolikidazioak behar bezala aurkezten direla eta zuzenak direla, onetsiriko Ikuskapen Planari jarraituz.

Comptos Ganberak adierazten du ezen, zerbitzu publikoetako enpresen aprobetxamendu berezietatik eratorritako dirusarrerai dagokienez, ezin izan dela kontrol-prozedura argirik ezarri, halako moldez non bermatu ahalko baita enpresek aurkeztutako aitortpenak zuzenak direla eta enpresa guztiek aurkezten dituztela aitortpenak.

Bada, hori udal guztiak ukitzen dituen problema orokor bat da, eta Iruña bi ildori jarraituz ari da lanean. Lehena, eta garrantzitsuena, aferaren hedadura orokorra kontuan hartuta, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bitartez gauzatu da, eragile ezberdinekin hitzarmenak sinatuz, haiekiko zerga-egoera erregularizatzeko eta beren sareak errentan hartzen dituzten beste eragile batzuei buruzko informazioa eman dezaten. Alde horretatik, Iberdrolarekiko hitzarmen bat jadanik sinatuta dago (2. dok.), eta adoste-fasean daude Endesa eta Gas Navarra-rekiko elkarrizketak. Telefónicatik datozen dirusarrerak Nafarroako Gobernuaren bitartez jasotzen dira.

Bestalde, Ikerketa eta Ikuskapen Unitateak aurtengo ekitaldirako lehentasun gisa dauka tasa horren gaineko kontrol bat ezartzea, eta jadanik exekuzio-fasean daude behar diren jarduketak; bat etorririk tasa hori telefonia mugikorreko enpresei aplikatzeraino hedatzeko 2008ko urrian harturiko erabakiarekin.

Behin betiko txostenean adierazi beharko da problema orokorra dela, konpainiek beraien artean sinatzen dituzten alokairu-kontratuen berririk ez izatearen ondoriozkoa, eta udala, Nafarroako Udaleri eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, arazoari irtenbide bat emateko hitzarmenak sinatzen ari dela. Gainera, Ikerketa eta Ikuskapen Unitateak aurtengo ekitaldirako daukan lehentasuna da tasa horren gaineko kontrol bat ezartzea.

– Bingoko sariak kargatzen dituen zergari dagokionez, autolikidazioa da kudeaketa-sistema; beraz, enpresak dira dirusarrera egitera eta aitortpena aurkeztera behartuta daudenak. Aitortpena aurkeztearen gaineko kontrola Ikuskapen Unitateari dagokio.

4.- “VI.4.1. Langileak” atalari buruz.

–Comptos Ganberak gomendatzen du lanpostu-sorkuntza eta –amortizazioa egin dadila plantilla organikoa aldatuz, eta ez, ordea, arau osagarriren bitartez, zeinek izapidetze eta publizitate bera baitaude.

Gai formal bat besterik ez da.

Hala ere, lanpostuak aldatzeko jokabide hori, plantillari buruzko arau osagarrietan oinarritua, zuzendu egin da, halako moduan non jadanik 2009an aurreko sistemaren arabera inolako aldaketarik ez baita egin.

Behin betiko txostenak agertu beharko du ezen, Comptos Ganberak dakien bezala, gaur egun bere irizpideari jarraitzen zaiola, eta, horrenbestez, plantilla organikoaren bitartez egiten direla aldaketak. Horregatik, gomendioa ezabatu egin beharko da.

– Plantilla organikoan lanpostu guztiak behar bezala zerrendatzeari dagokionez, kontua da 2009ko plantilla organikoan jadanik zerrendatuta daudela lanpostu guztiak, plantilla gauzatzeko arau osagarrietan jasotakoak barne, behar bezala ordenaturik eta sailkaturik, eta bakoitzak dituen osagarriak aipaturik.

Behin betiko txostenean gomendio hori ezabatu egin beharko da, zeukan helburua lortuta dagoenez gero.

– Lanpostu hutsak enplegu publikoaren eskaintzetan sartzeari buruz, ohartarazi behar da urteroko enplegu publikoaren eskaintzetan sartu direla erreserbatu gabekoak izanik kontratazioen bidez beteta zeuden lanpostu huts guztiak, eta kasuko deialdiak argitaratzen ari direla, lanpostu horiek betetze aldera.

Behin betiko txostenak horren berri eman beharko du, eta gomendio hori ezabatu egin beharko da.

– Administrazio-kontratudunei jardunean ari direneko postuari dagozkion kontzeptuengatik ordaintzearen gomendioari dagokionez, esan behar dugu ezen, gaur egun, administrazio-kontratudunei ordaintzen zaiela betetzen ari diren lanpostuari dagozkion ordainsari-kontzeptuen arabera, eta Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 1998ko maiatzaren 15ean eginiko Osoko Bilkuran onetsiriko baldintzen arabera.

Hortaz, gomendio hori erauzi egin beharko da behin-behineko txostenetik.

– Hiru urtez gorako iraupeneko kontratuei dagokionez, gogorarazi behar da ezen, 2004. urte-

az geroztik, onetsi diren enplegu publikoaren eskaintzetan 450 lanpostu baino gehiago daudela bilduta. Publikoki eskainitako lanpostu bat betetze-ko beharrezkoa da prozedura bati jarraitzea; prozedura hori hasten da lekualdatze-lehiaketa bidezko betetzearekin, eta urrats horrek, kasu batzuetan, urte eta erdi baino dezente luzeago hartu ohi du lanpostua behin betikoz betetzen den arte. Horrela, ba, ez da harrizkoa hiru urtez gorako iraupeneko kontratuak existitzea. Horiek, nolahi ere, gero eta gutxiago dira.

Behin betiko txostenak zehaztu beharko du hiru urtez gorako indarraldia daukaten kontratuei eusten zaiela, hain zuzen ere, lanpostu huts guztiak behin betikoz betetze aldera udalak onetsi dituen enplegu publikoaren eskaintza handien ondorioz. Alegia, udalaren nahia ez da hiru urtez gorako iraupena daukaten kontratazioei eustea, baizik eta alderantziz: hutsik dauden postu guztiak betetzea.

– Espedienteetan langileei dagozkien inguruabar guztiak sartzei dagokionez, kontua da bete-behar hori gaur egun bete egiten dela.

Beraz, gomendio hori ezabatu egin beharko da.

– Lanaldi-luzapeneko osagarriak eta eskusibitate-osagarriak daukaten funtzionario jakin batzuek zenbait ordainsari eta aparteko orduen ordaina kobratzei dagokionez, honako hau ohartarazi behar da:

• *Kobranta horiek ez dira udalaren ezein jardun diskrezionalen ondorio, baizik eta, aitzitik, udaleko funtzionarioen enplegu-baldintzei buruzko akordioaren edukia zorrozki aplikatetik eratorritakoak dira. Akordio hori Tokiko Gobernu Batzarrek 2005eko urtarrilean hartutako erabaki bidez onetsi zen (3/PR), zeina 2005eko martxoaren 21eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen, Lan zuzendari nagusiaren 121/2005 ebazpena tarteko.*

• *Alabaina, eta Comptos Ganberaren irizpidea ikusirik, zenbateko horiek onesten zituzten egintzak ofizioz berrikusteko prozedurari ekin zaio.*

Horrenbestez, behin betiko txostenean jasota utzi beharko da ezen, alde batera utzirik udalaren egintzak udaleko funtzionarioen enplegu-baldintzei buruzko akordio baten arabera izatea, udalak, Comptos Ganberaren iritzia ikusirik, aipaturiko ordainketa-egintza horiek ofizioz berrikusteko prozedurari ekin diola.

Aparteko orduei buruz, Ganberak uste du “kasu askotan” ez direla ohiz kanpoko edo presako lanen ondoriozkoak.

Lehenik eta behin, zehaztu behar da Ganberak aparteko ordutzat jotzen dituen kasuetako batzuk ez direla aparteko orduenak, baizik eta udaleko funtzionarioen lan-baldintzei buruzko akordio horretan sartutako kontzeptuei dagozkiela; adibidez, epaiketetara joateari dagokionez (akordioaren 23. orrialdea, non esaten baita ezen lanalditik kanpo epaiketetara joatea konpentsatu egiten dela aparteko 3 ordurekin”).

Gainerako kasurik gehienak udaltzainek egingdako lanak dira, eta, aurreikusi ezinako edo ohiz kanpoko inguruabarrek eragindakoez gain, honako hauengatik dira: ikastaroetara joatea lanalditik kanpo, abian dauden ekimenak edo izaera erresebatua duten jarduketak (besteak beste, Estatu-ko beste segurtasun-kidego batzuekin baterako operazioak) bertan behera utzi ezin direnean txandaldaketak suertatu izana.

5. VI.4.2. atalari buruz. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan.

– Etxez etxeko laguntzako zerbitzurako elikagai-horniketari dagokionez, behin-behineko txostenak dio kontratua aldatu egin zela hura exekutatu ondoren.

Jarduketa horren zergatia izan zen zerbitzu-erabiltzaileen bat-bateko gorakada; hainbestera-koa non, elikadura oinarritzko prestazioa izaki, ezin izan baitzen itxaron administrazio-izapide guztiak bete arte.

Horregatik, behin betiko txostenean zehaztu beharko da salbuespenezko egoera bat izan zela, zerbitzuaren gorakadaren ondoriozkoa, eta helburua izan zela zerbitzuaren jarraitasuna ziurtatzea erabiltzaileei kalterik egin gabe.

6.- “VI.4.3. Inbertsioak” atalari buruz.

– Behin-behineko txostenak aipatzen du ezen, kontabilitatean, gastu-proiektuek ez dituztela jasotzen aurreikusitako dirusarrera eta gastu guztiak, eta finantzaketa-desbiderapenak ez direla modu egokian kalkulatu. Gure ustez, eta oro har, gastu-proiektuek jaso egiten dituzte aurreikusitako dirusarrera eta gastuak, eta finantzaketa-desbiderapenak egokiro kalkulatu dira, posible bada ere proiektu zehatzen batean kasuko gastuak edo dirusarrerak behar bezala egotzi ez izana; dena den, kontabilitate-aplikazio informatiko berria abiaraztearekin batera, kontrolak ezarriko dira, eta horrek proiektuen kontrol hobea ahalbidetuko du, inbertsioen exekuzioari dagokion kudeaketa lotuta geratuko baita haien kontabilitate-agerpenari.

Atal horretan, gomendio gisa aipatzen da baliabide atxikiekin finantzaturiko kreditu-gerakinak erantsi behar direla, salbu eta gastu-exekuzioare-

kin aurrera segitzeari uko egin zaioneko kasuetan. Gomendio horixe bera jadanik egin zen, 2006ko kontuen fiskalizazioa zela-eta. Udalak jarraituriko irizpidea izan da baliabide atxikiekin finantzaturiko kreditu-gerakinak eranstea inbertsio-exekuzioari buruzko aurreikuspenen arabera (Comptos Ganberak eginiko beste gomendio baten ildotik, zeinean esaten baita beharrezkoa dela inbertsioei buruzko urteroko aurrekontua hobetzea, inbertsio horiek esleitu eta exekutatzeko aurreikusitako epeak aintzat harturik), eta, udalbatzak harturiko erabaki bidez, uko egitea gastu soberakinaren exekuzioarekin (ez, ordea, inbertsioarenarekin) aurrera egiteari ekitaldi likidatuan, baldin eta indarreko aurrekontuan horretarako dirua izendatua badago. Irizpide hori dauka udaleko kontu-hartzaitzak ere. Horrela lortu nahi da urtero onesten den hasierako aurrekontua ahalik eta neurri handienean bat etorraraztea bere egiazko betetzearekin.

– Gorriti eta San Fermin kaleen birmoldaketari dagokionez, Comptos Ganberak dio udalak 2007an ez zituela kobratu Iruñerriko Mankomunitatearengandik haren kontura egindako obrak, ez baitzizkion fakturatu 2007an egindako eta ziurtapena lortutako sare-lanak.

Bada, udalak 2007an ez zuen kontzeptu hori kobratu, horretarako sinaturiko hitzarmenak ez zuelako halakorik aurreikusten.

Izan ere, 2007ko apirilaren 25ean sinaturiko hitzarmenak ez du zehazten zein momentutan fakturatu behar diren sare-lanak. Bakar-bakarrik jasotzen du, laugarren eta seigarren ataletan, udalak fakturatuko duela onetsiriko ziurtagiriaren arabera, eta Mankomunitateak ordainduko duela azken ziurtapenetik heltzen den kopurua.

Obra horien konplexutasuna zela-eta, soil-soilik bukatuta zeudenean (hau da, amaierako ziurtapena "onartu" edo onetsi ondoren) jakin ahal izan zen fakturatu beharreko zenbateko zehatza. Horrela, eta kasu honetan, hasiera batean kalkulatu zelarik Mankomunitateak 598.623,29 euroko ordainketari aurre egin beharko ziola, azkenean 417.519,04 euro ordaindu behar izan zituen. Obraren amaierako ziurtapena alkateak 2009ko urtarriaren 22an emandako ebazpenaren bitartez onetsi zen, eta jarraian Mankomunitateari exigitu zitzaion bere obrari zegokion partea ordaintzea, eta Mankomunitateak 2009ko otsailaren 23an agindu zuen ordainketa hori.

Azalduetakoei buruzko dokumentazioa erantsi zaio idazki honi (3. dok). Beraz, ondorioztatzen da behin betiko txostenean ezabatu egin behar dela gai honi buruzko aipamena, edo, gutxienez ere,

azaldu behar da ordainketa ez zela 2007an egin, hitzarmenak ez zuelako halakorik aurreikusten, eta amaierako ziurtapena ere ez zelako onartu.

– Autobus-geltoki berriaren inguruak egokitzeari buruz, Comptos Ganberak adierazten du obra hori autobus-geltokiaren kontratistari esleitu zitzaioela, obra osagarritzat jo eta izapidetu zelako. Alabaina, Comptos Ganberaren iritziz, Ziudadelako lubanarroetarako sarbidearen aldaketa aintzat hartu zen; sarbide hori obra nagusiaren proiektuan sartuta zegoen eta, beraz, kontratu-aldaketa gisa izapidetu behar izan zen.

Adierazi behar dugu Comptos Ganberak behin-behineko txostenean eginiko baieztapena ez dato-rela bat errealitatearekin: eskailerak agertzen dira, bai, proiektu nagusian zehaztuta, baina Ziudadelako lubanarroen arrapala ez da hor sartuta agertzen. Eta horixe da, hain zuzen ere, osagarri gisa kontrataturiko obren xedea: ezgaituentzako irisgarritasuna ahalbidetzea.

Horrelaxe jasotzen da obra osagarriei buruzko agindu tekniko partikularren orrian bertan: 3. klausulak, arrapala horiei buruz, honakoa dio: "Hura da kalearen mailara iritsi gintezkeeneko tokia, autobus-geltokiaren proiektu exekutiboan zehazturiko eskailera baten bitartez, edo oinezkoentzako arrapala baten bitartez (% 8ko maldaduna), obra osagarriaren proiektu honek aurreikusten duena".

Behin betiko txostenean ezabatu egin beharko da Ziudadelako lubanarroetarako sarbidea autobus-geltokiaren proiektuan sartuta egoteari buruzko aipamena, ez baita errealitatearen arabera: sarbidea beste proiektu baten aztergaia izan zen eta, horregatik, obra osagarri gisa izapidetu zen.

Obren harreraren ostean izandako gastu horiei dagokionez, eta obren jarraipena egin zuen teknikariak 2007ko abenduaren 14an eta Proiektu Estrategikoetako Alorreko idazkari teknikoak 2007ko martxoaren 25ean eginiko txostenetan azaltzen denez, esan behar da gastu horiek direla proiektuan aurreikusitakoak baino neurketa handiagoen ondoriozkoak, kuantifikagarriak direnak obren amaierako ziurtapenean edo kontratuaren likidazioan (une horretan izapidetu behar dira horrelako gaiak, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeak, ekainaren 9koak, 108. artikuluan ezartzen duenez). Nolanahi dela ere, daten artean dagoen aldearen zergatia da harrera behin-behinekoa eta behin betikoa egitearen beharra, obren jarraipena egin zuen teknikariaren arabera.

Azkenik, kontuan izan bedi izapidetzea zuzenbidearen arabera izan zela, aintzat hartzen baldin badugu obraren amaierako ziurtagiriaren data 2007ko urriaren 25a dela.

Beraz, behin-behineko txosteneko hitzei zehaztapen bat egin beharko zaie, zera ikusarazteko: geroagoko gastuak behin-behineko harreraren ostekoak direla, ez behin betikoaren ostekoak, eta neurketa handiagoen ondoriozkoak direla, Kontratu Publikoari buruzko Foru Legearen arabera.

Yamaguchiko iturriari dagokionez, Comptos Ganberak baieztatzen du kontratua aldatu egin zela, eta behin betiko harrera-akta sinatu zela behin-behineko harrera eta 13 hilabete geroago, nahiz eta baldintza-orriak 10 eguneko epea ezarzen duen akatsak konpontzeko.

Egin zen, egin ere, kontratu-aldaketa bat, eta horrek esleipen-aurrekontua igoarazi egin zuen, baina behin-behineko txostenak isildu egiten du aldaketa hori proiektua prestatzean egin zela, eta ez obra-exekuzioaren fasean (aldaketa justifikatzen zuen txosten juridikoak adierazten zuen obrak egiteko prozesu orotan komeni dela zehaztapenak proiektuan egitea, eta ez obran, maiz gertatu ohi denez).

Behin betiko txostenak gaia zehaztu beharko du azaldutako ildotik. Bestalde, eta aktei eta konponketei dagokienez, esan daiteke Comptos Ganberak gertaturikoari buruzko irakurketa okerra egin duela.

Ez da egia behin-behineko harreratik hogeit egun eman zirenik konponketak egiteko, baizik eta espresuki adierazi zen akatsen konponketa egiten zela “2007ko eguberrien ondoren”.

Zehazki, eta espedientean ikus daitekeen bezala, 2007ko maiatzaren 2an izan zen behin-behineko harrera, eta bertan baieztatu zen iturria funtzionamenduan uzten zela, eta erabiltzeko baldintzetan, baina akats multzo bat zegoela: zoladura aldatu behar zen, iragazkiak garbitu edo ordeztu, eta elektrobulbulak ikuskatu edo ordeztu.

Beraz, interes publikoko arrazoiak zirela-eta jarri zen funtzionamenduan obra, nahiz eta geroagoko konponketa batzuk beharrezkoak izan, kontraturiko prestazioaren harrera egokia egin ahal izateko.

Ildo honetatik, Hiri Kontserbazioko Alorreko idazkari teknikoak, 2008ko ekainaren 16an egin zuen txostenean –espedientean dago–, ohartarazten zuen ezen, iturri interaktiboa izateagatik eta herritar-jardun handia eta askotarikoa dagoen plaza batean egoteagatik, komenigarriagozat jo zela aldaketa haiek neguko hilabeteetan zehar egitea. Bestela jokatzuz gero, herritarrek iturri hori erabili ahal izatea, martxan ipini arte hesi batez guztiz inguratuta egon zena, eragotzi izanen zen,

eta horrela, udan iturriaz gozatzeko aukera, kontratazioa eragin zuena, atzeratu eginen zen.

Horrela, ba, behin betiko txostenetik ezabatu egin beharko da harako aipamen hura, behin-behineko harreraz geroztik akatsen konponketarako hogeit eguneko epe bat ezartzeari buruzkoa, eta idatziz jaso beharko da, betiere, konponketak negurako geroratu zirela, eta halaxe jaso zen udalaren eta kontratistaren artean eginiko aktan, herritarrek iturria udan erabili ahal izan zezaten, erabilerara horixe baita iturria ipintzearen helburua.

– Comptos Ganberak dio zuzenean esleitu zirela, kopurua zatikatuz, zenbait gastu berdin, egun berean eta hornitzaile berarekin eginikoak:

Zilegi da ezberdinak diren prestazioak bereizirik kontratatzea, ekainaren 9ko Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legeko 6. artikuluan definiturikoa bezalako obra batean integratzekoak direnean, halako kasuetan non prestazio horiek berezko mamia duten, exekuzio berezia ahalbidetzen duena, gaikuntza jakin bat duten enpresek egin beharrekoak direnean.

Bada, eginiko fakturak dira erabilera edo aprobetxamendu berezia izan dezaketen prestazioenak, eta unitate funtzional bat osatzen dute. Ganberak ez du inola ere justifikatzen prestazio bateratuak osatzen dituztenik. Besterik gabe baieztatu du fakturak egun berean aurkeztuak direla, eta horrek, jakina, ez du ezertan galarazten prestazioak bereziak izatea. Ohartarazi beharrekoa da ezen, nahiz eta batzuetan elementu komunak badauden –adibidez, Juslarrochako obrak–, kontratazioen xedea eta izaera ez direla berdinak izaten, eta, are garrantzitsuago, aprobetxamendu banandurako modua ematen dutela.

Horrenbestez, ez dira gauza bera eraikin baten fatxada eraberritzea, edo barnealdea partzialki zaharberitzea, edo geletan beirateak ipini edo igeltserotza-lanak egitea, edo instalazio elektrikoa egokitzea.

– Gomendioei dagokienez:

a. Lehenbiziko gomendioari ukitu bat egin beharko zaio, aldaketak egitea guztiz debekatzearen zailtasunaz ohartaraztearen, beti ezin izaten baitira kalkulatu zeintzuk diren baldintzapen guztiak herri-lanaren amaierako emaitza egiazki izan dadin bete behar dituen beharrezkoen arabera, eta begi-bistakoa da herri-lana egitean sor daitezkeen gorabehera guzti-guztiak aurreikustea zeinen zaila den.

b. Kontratu-espedientea kasuko obrak egin aurretik izapidetzeari eta onesteari dagokionez, orobat gehitu beharko da horrela jokatu ohi duela

udalak, nahiz eta, ezohiko kasuetan, tankera horretako espediente bat izapidetzeko behar ohi den denborak honakora behartzen duen: interes publikoari kalte larririk ez egitearren, obraren nondik norakoei buruzko erabakiak hartzera, gero batean kontratazio-organoak berresten dituenak.

c. Kontratuaren jarraipenari eta betetzeari dagokionez, behin-behineko txostenean egiten den gomendioa presuntzio batean oinarritzen da; hots, udalak orokorrean ez dituela betebeharrak horiek betetzen: Egiazki, ordea, alderantziz da, Comptos Ganberak berak egiaztatu ahal izan duenez.

d. Kontratu-xedea deskonposatzeari buruz, jadanik ohartarazi dugu Comptos Ganberak ez duela frogatu, aipagai hartu dituen kasuetan, prestazioak bateratuak direnik. Horregatik, gomendioa okerrekoa da, eta, nolahi ere, bere horretan neurrigabea.

e. Ziurtagiriak emateari eta haiek ordaintzeari dagokionez, jadanik ohartarazi dugu ezen Comptos Ganberak aipatzen duen kasu bakarra, Gorriti eta San Fermin kaleetako obrak, osoki justifikatuta dagoela. Beraz, gomendioa ez da bidezkoa.

f. Urteroko aurrekontu-prestaketa hobetzeari buruz, kontuan harturik inbertsioak esleitu eta egiteko aurreikusitako epeak, zilegi da ohartaraztea ezen, batzuetan, inbertsioa egiteak jarduketa ezberdinak egitera behartzen duela, obren hasiera eta, beraz, aurrekontu-betetzea ere atzeratzen dutenak.

Horren zergatia dira obren exekuzio-proiektuaren prestaketa kontratatu izana –hori beharrezkoa da egin nahi diren obra guztien kasuan–, beste administrazio batzuekin koordinaturik obrak aurrera eramateko hitzarmenak sinatu izana, edo eragile politiko eta sozial ezberdinek obren zehaztapenean parte hartu izana.

Gainera, zenbait kasutan, obrak aurrera eramateko edo haiei jarraipena emateko beharrezkoak diren baimenek (Vianako Printzea Erakundea, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa...) atzeratu egiten dute haien hasiera-data, eta, horrekin, hasierako aurrekontu-aurreikuspena hondatu egiten da.

7.- VI.4. atala: zerbitzu informatikoak.

Oro har.

Comptos Ganberak zalantzarik gabe okerra den ikuspegi batetik fiskalizatzen du udalak Animsari mandatuan emandako proiektuen exekuzioa.

Eta horrela da, hain zuzen ere, Ganberak “proiektu” bakoitzaren exekuzioa aztertzen duelako zera hori dokumentu jadanik bukatua eta osotua balitz bezala, berehala exekutatu ahal izateko

moduan legokeena. Eta, ikusmolde horretatik abiatuz, lorturiko betetzea eta exekuzioak izandako kostua juzgatzen ditu. Argiro esanez, eta konparaziorako adibide gisa obra-kontratuak harturik, Comptos Ganberak “proiektu” bakoitza hartzen du obra-proiektu bat balitz bezala, eta horri dagozkion planoak, obra-unitateak eta prezioak zeharo definituta baleude bezala eta, beraz, berehala exekutatu izateko moduan balego bezala.

Baina gertatzen dena da Animsari mandatuan emandako “proiektuak” ez daudela xehetasun-maila horretan definituta, zeren eta, hain zuzen ere, haiek zehaztu eta idaztea Animsaren lana baita.

Erraz ikusten da hori, hala mandatuaren testuari nola Animsak elkarren ondoren buruturiko egin-tzei erreparatzen badiegu:

a. Mandatuan, aplikazio informatikoen proiektu bakoitza laburpen-fitxa batean definituta agertzen da; fitxa horren xedea da “proiektua tipifikatu eta zedarritzea, bere fase eta jarduerekin, eta denboraren eta baliabideen araberrako exekuzio-aurreikuspenarekin, ezarritako helburuak eta norainokoa aintzat harturik” (ikus “Iruñeko Udalerako Zerbitzu Informatikoen 2007ko Programa” deritzon dokumentuko 2-4 atala).

Fitxa egiteko, lehenbizi datuak hartzen dira (datu-hartze horrek, normalean, ez ditu ukitzen proiektu bakoitzeko betekizunen xehetasunezko definizioaren eraginpeko erabiltzaile ezberdinak). Kostuei eta epeei buruzko hasierako estimazioa egiten da oinarri gisa harturik Proiektu Departamentuaren jakintza eta eskarmentua, eta betidanik ulertua izan da zehaztasun-maila onargarriko hurbilketa gisa, kasuko urtean zehar ekin ahal zaien proiektuak identifikatzeko balio duena.

Zerbitzu Informatikoen Programan sarturiko fitxen zehaztasun-mailak berak bideraezin egiten du aurrekontu doitu bat egitea (ikus NAAY02 eta NAED01 proiektuen adibideak, atxiki direnak). Aurrekontu zehatz bat egiteko, beharrezkoa da, nahitaez, kasuko analisi funtzionala aurretiaz egitea. Proiektu bati ekitea erabaki ondoren, proiektuaren garapen-fase guztiak lotzen zaizkie Animsa-ISO 9001:2008 kalitate-sistemakoak diren kasuan kasuko prozedurei.

Gainera, programazio- eta diseinu-baliabideak azpikontratatu egin ohi dira. Azpikontratazioa lehiaketa publiko bidez egiten da; normalean, lehiaketa hori ez da esleitura egoten zerbitzu informatikoen programa itxi aurretik, eta, horregatik, proiektuaren guztizko kostuan daukan eragina gutxi gorabehera neurtua besterik ezin da izan.

b. Animsari dagokio aplikazio informatiko bakoitzaren analisi funtzionala egitea, eta horren emaitzak bai, ematen ditu aurrekontu fidagarria egiteko behar adina datu.

c. Aplikazioen lehenbiziko bertsioa erabiltzaileak probak egin ditzan aurkeztu ondoren (aplikazio horiek neurri garaturikoak nahiz merkatuko softwarea direla ere), oso ohikoa da hobekuntza-proposamenak sortzea maiz, hala analisi funtzionalen parte-hartzen duten erabiltzaileek eginak nola fase honetan iritsiak diren beste batzuek eginak.

Ezarpen-epeak kalkulatzeko dira antzeko aplikazioekin dagoen esperientziaren arabera, baina iraupen erreala faktore ezberdinen eraginpean daukan fase bat da: erabiltzaileak noiz ahal duen, udalaren kudeaketari kalterik ez egitearren ezarpen-epe aproposenei itxarotea, datu historikoen migrazioa, beste aplikazio batzuekiko integrazioa...

Alegia, proiektu bakoitzaren gaineko mandatu, egiazki, proiektua idazteko eta gero hori exekutatzeko mandatu bat izan ohi da. Horregatik, ezin dira mandatuaren exekuzioaren emaitzak juzgatu fitxako aurrekontuari hertsiki atxikiz; aurrekontu hori estimazio-moduko bat baizik ez da, eta aldatu eginen da analisi funtzionalaren edukia eta kasuan kasuko aplikazio informatikoaren probazko ezarpenaren emaitza ikusita.

Horiek horrela, ez daukate oinarri behin-behineko txostenak bi proiekturi buruz ("informa" eta "ciudades singulares") esandakoek; hain zuzen ere, mandatuan ezarritako aurrekontua hartzen duelako guztiz definituriko bi proiektu baleude bezala, nola eta, esan dugun bezala, hain zuzen ere alderantziz denean, zehaztapena egitea Animsari baitagokio.

Argudio horrek bere horretantxe ekartzen du behin-behineko txostenaren edukia arbuio erabatekoa. Baina, horrez gain, Comptos Ganberak bi proiektu horiei buruz adierazitako iritziak okerrak dira bestelako arrazoi gehigarri batzuegatik ere.

"Informa" proiektua.

Exekuzioan izandako zortzi hilabeteko ustezko atzerapenari dagokionez, txostenak ulertzen du fakturak aurkeztu zirela proiektua aurkeztu eta berehala, eta hori ez zen horrela izan. Lanabesa 2005eko azaroan erosi zen, ezarritako baldintzeta-rako beharrezkoak ziren egokitzapenak egin ziren, eta 2006ko ekainean ezarri zen, hasierako kalkuluekiko hiru hilabete baino gutxiagoko atzerapenarekin.

Eta proiektuaren aurrekontuari buruz aipaturiko gorakadari dagokionez, bere kalkulu-izaera berriro

ere azpimarratu ondoren, esan behar dugu gure ustez ez dela zuzena gertaturikoaz eginiko interpretazioa ere; izan ere, 2005erako aurreikusitako aurrekontua konparatzen da zenbait ekitalditan zehar eskaturiko eta eginiko lan ezberdinekin.

Urte anitzerako proiektu bat da, agerian uzten duenez Iruñeko Udalaren eta Toki Administrazioako Departamentuaren arteko 2005, 2006 eta 2007ko hitzarmenetan sartua izateak. Urte hauetan zehar zeregin gehiago ezarri zaizkio lanabesari, eta horiei erantzun egin zaie, Iruñeko Udalaren beharriak asetzearren.

"Ciudades singulares" proiektua.

Aurreikusitako lan guztiak egin gabe egoteari dagokionez, esan behar da behin-behineko txostenen zerrendaturiko jarduera ezberdinetatik 2008an bukatu gabe zegoen bakarria kudeaketa ekonomiko eta finantzarioko sistema izan dela. Gaur den egunean, jadanik badago horren bertsio bat, udaleko teknikariek proba-fasean daukatena, eta ezarriko da udal-kudeaketan enbarazu ahalik eta txikiena egiteko moduko egunak zein diren erabakitzen denean.

Proiektuaren kostuari buruz, ohartaraztea komeni da bai sistema ekonomiko eta finantzarioa bai proiektu honetako beste produktu batzuk diseinatuta daudela Animsaren toki entitate guztietan erabiltzeko. Horregatik, lanabes honetan eginiko inbertsioaren parte bat beren gain hartzen dute beste udal batzuek, bai eta Animsak berak ere; hortaz, Iruñeko Udalarari esleiturikoa bezainbesteko kopuru bat gastatu izanak ez ditu ekartzen Comptos Ganberak aipaturiko ondorioak.

Alegia, baterako jarduketara (zenbait udalena eta Animsarena) denez, begi-bistakoa da aldeetako batek (hots, Iruñeko Udalak) ekarritakoa bezainbestekoa den kopuru bat gastatzeak ez duela esan nahi proiektuak bukatuta egon behar duenik hari dagokionez, proiektua komuna baita eta ezin baita zatikatu. Horrela ulertu behar dira udalaren informatika-arduradunaren txostenak.

Beraz, guztiz faltsuak dira 32. orrialdeko azken lerrokadan, gomendioen aurretik, adierazitakoak, eta ezabatu egin beharko dira, horrenbestez.

7.- Txosten exekutiboa.

Alegazio hauen hasieran ohartarazten genuenez, eta adierazitako oinarrien ondorioz, aldatu egin behar dira txosten exekutibo edo laburpenaren nondik norakoak, jarraian zehazturikoaren ildotik:

– Kontu-hartzaitzari dagokionez, jasota utzi behar da jadanik lanpostu bat gehiago daukala, kontrol-eginkizuna betetzeko.

– Tributu-dirusarrerei dagokienez, Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergan eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan detektaturiko okerrak zuzendu dira.

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA

Behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioei emaniko erantzuna

Honako alegazio hauek behin betiko txostenean aintzat hartu dira, eta beraz, behin-behineko txostena horren arabera aldatu da:

3. alegazioa, txosteneko VI.3.1. atalari (tributuak) buruzkoa, Nafarroako Gobernuari jarduera ekonomikoen gaineko zergaren hobariak ordaintze aldera udalak eginiko eskaerari dagokionez.

4. alegazioa, txosteneko VI.4.1. atalari (langileak) buruzkoa, lanaldiaren luzapeneko osagarria edo dedikazio eskusibokoa esleituta zeukaten funtzionarioei aparteko lanorduak ordaintzearen inguruan. udalak ofiziozko berrikuspen-prozedura hasteari dagokionez.

6. alegazioa, txosteneko VI.4.3. atalari (inbertsioak) buruzkoa, autobus-geltoki berriaren ingurua egokitzeko obrari eta Yamaguchiko iturriari dagokionez.

Gainerako alegazioei dagokienez, behin-behineko txostenari erantsi zaizkio eta txostena behin betikotzat jotzen da; izan ere, ohar horiek eginiko jardueren azalpentzat hartu dira, eta ez dute txostenaren edukia aldatzen.

Dena den, alegazio batzuei dagokienez, Comptos Ganberak honakoa zehaztu beharra dauka:

Fiskalizazio-txostenean adierazitako akatsak zuzentze aldera udalak bere esanetan egin dituen jarduketak agertzen dira, Comptos Ganberak 2009ko urtarrilean amaituriko landa-lanaren bidez jarduketa horien ezarpena egiaztatu ahal izan duen kasuetan, gomendioen betetzeari buruzko analisisa jasotzen den atalean.

3. alegazioa, VI.3.1. atalari (tributuak) buruzkoa

Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari dagokionez, udalak amaierako autolikidazio osagarria subjektu pasiboari ez dio eskatzen zergari buruzko ordenantzak ezartzen duen epean (hilabete, obrak bukatzen direnetik).

4. alegazioa, VI.4.1. atalari (langileak) buruzkoa

2007an, erreserbatu gabeko lanpostu huts guztiak ez zeuden enplegu-eskaintzan sartuta. 2007ko enplegu-eskaintza publikoa 33 lanpostu-koa izan zen, eta urte horretan zehar zenbait deialdi argitaratu ziren, 2004an eta 2006an eskaintako lanpostuenak, baina ez guztienak (2005ean ez zen enplegu-eskaintza publikorik izan).

Langile-espedientei dagokienez, lanpostuan merezimendu-lehiaketa baten edo behin-behineko izendapen baten bitartez jardunean ari diren langile batzuen kasuan egiaztatu ahal izan dugu ez dela inolako dokumentaziorik agertzen espedienteetan.

Aparteko orduetaz denaz bezainbatean, egiaztatu dugu horietara modu orokorrean jotzen dela udaltzaingoan, honakoak bezalako eginkizunak betetzeko: diligentziak prestatzea, epaiketetara joatea, ikastaroetan parte hartzea, hitzaldiak ematea eta hedabideei erantzutea, besteak beste.

5. alegazioa, VI.4.2. atalari (gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan) buruzkoa

2007rako elikagai-hornidurako kontratua, jadanik urte horretako martxotik aurrera, hilabeteroko estimazioak baino ehuneko 11 gehiagoko neurrian exekutatu zen, eta ondoko hilabete guztietan portzentaje hori mantendu eta are alde handiz gainditu zen. 2007ko abenduan esleipena handitzea erabaki zen, eta horretarako justifikazio gisa adierazi zen “beharrizanen aurreikuspena hazi” egin zela.

6. alegazioa, VI.4.3. atalari (inbertsioak) buruzkoa

Egiaztatu ahal izan dugu ezen, oro har, gastu-proiektuen modulu informatikoaren funtzionamendua ez dela arteza. Horrela, kasu ugartan ez dira jasotzen proiektuko gastu eta dirusarrera guztiak, hala egindakoak nola aurreikusitakoak, proiektuaren iraunaldiko ekitaldi guztietan, eta egotzitako finantzaketa-koefizienteak ez dira zuzenak.

Inbertsioen aurrekontu-egitarauari dagokionez, inbertsio horien esleipen- eta exekuzio-aurreikuspenak kontuan hartu behar dira. Era horretan, jaitsi eginen litzateke ekitaldi-itxieran suertatzen diren kreditu-gerakinen zenbatekoa.

Hori hala izanik ere, baliabide atxikiekin finantzatzen diren proiektuak babesten dituzten kreditu gerakinak nahitaez aintzat hartu beharko dira, salbu eta gastuaren exekuzioa hasi edo jarraitzeari osoki edo hein batean uko egiten bazaio edo horren gauzatzea ezinezkoa gertatzen bada.

Gorriti eta San Fermin kaleen birmoldaketari dagokionez, hitzarmenak ezartzen du udalak

SCPSAri fakturatuko diola hari egoztekoa zaion obra-zatia, aurkezturiko ziurtagirien arabera. SCPSAk udalari ordainduko dizkio onetsitako ziurtagiriak, hasiera batean aurrekontuetan sarturiko hornidura- eta saneamendu-sareak berritzeari buruzkoak, edo, kasua bada, amaierako ziurtagiritik suertatzen den kopurua.

Autobus-geltoki berriaren ingurunea egokitzeari dagokionez, ez da agertzen behin betiko harrera-akta. Ikusi dugun harrera-akta 2007ko maiatzaren 22koa da. Geroago, hiru ziurtagiri aurkeztu dira, ekainean, uztailan eta urrian, eta bukaerakoa, 2007ko azaroan.

Gastu-zatikapenari dagokionez, ikusi dugu ezen, txostenean adierazitako kasu guztietan, zatiaturiko gastuek unitate bat osatzen dutela. Udalak ez du justifikatu izaera bereko eta xede berdineko gastuak, data berean eta hornitzaile berarekin eginak, zergatik kontratatu diren bereizirik.

7. alegazioa. VI.4.5 atala (zerbitzu informatikoak)

Aplikazio informatiko berrien eta Animsa enpresari enkargaturiko beste lan batzuen garapenari dagokionez, udalak haien exekuzioa eta aurreikusitako helburuen betetzea kontrolatu behar du.

“Ciudades singulares” proiektuari dagokionez, behin-behineko txostenean jasotzen den bezala, kudeaketa ekonomiko eta finantzarioko sistema informatikoa ez dago osoki bukatua, eta enkarguan ezarritako zenbateko osoa gastatu da.

Gainerako jarduketari dagokienez, udaleko informatika-arduradunak 2009ko urtarrilean eginitako txosten baten arabera, hamaika aplikazio informatikoetatik bat soilik (errola) ezarri da, dirubiltzaren kudeaketari buruzko lanak egiten ari dira, eta enkarguko kreditu erabilgarria jadanik ahitu da.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

